

tti pi-ttapa

247. zenbakia • 1999ko otsailak 11 • XIX. urtea



28 Kirolak: Patrizia Leiza

Estatu Batuetako Yosemite, Red Rocks eta bertze hainbat mendi igo eta errekek jautsi ditu kirolari elizondarrak. Bere erranetan, «arrisku kirola deitzea ez da egokia, norberak ikusten du noraino posible den. Guk ere piragua bizkarrean hartu eta oinez segitzen dugu arrisku haundia ikusten dugunean».

4 Erreportaia: Lau pediatra daude 3.156 haur atenditzeko

Pediatren aferarekin hautsak pittin bat harrotu dira azken boladan, batez ere Bortzirietan egin dituzten ordu aldatetengatik.

6 Iritzia: Nafarroako Euskararen Kontseilukideen kargu uztea

Hiru iritzi bildu ditugu.


TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



Eskual Departamenduak sustengu haundiagoa du egunetik egunera

Gauzak mugitzen ari dira Iparraldean. Heletako bilkura eta Baionako manifestazioaren ondotik, Eskual Departamendua eta eskuararen aldeko mugimenta sekulan baino indartsuago da. Hautetsi, sindikatu eta elkarte aintz dira eskakizun horrekin bat egin dutenak, aberzale izan edo ez, eskuineko ala ezkerreko. Horrelaxe ikusten du afera hau Jean Aniotzbeherek ere, Sarako auzapez eta Eskual Departamenduaren aldeko Hautetsien lehendakariak. «*Iparraldean eskual gogoia sortzen ari da, eta hori Departamendua baino inportantagoa da. Demokrazia ez baita luzaz gogoaren kontra gaten ahal*».

3





Bidasoa 45-60 • BERA

Tfnoa: 948 630537

*Neurrira
egindako
mobleak*



Osasungintzako Profesionalak

Jorge Sopena Colombero

**hortz
klinika**

© 948 630647
Itzea 1, 1. • BERA

**Begoña
Mitxelena
Sagastibeltza**

KIROMASAJISTA

Elizgibela, 6 • DONEZTEBE

☎ 948 45 07 43

**MAGNETISTA
NATUROPATA**

IKUSMENA BERRESKURATZEA

GIHARRE ARAZOAK

OPERAZIO ONDORIOETATIK
INDARTZEKO TRATAMENDUAK

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4. IRUN

BELARRA

Herbodietetika – Janaridenda

© 948 510192 • Elbarren, 35 • LEITZA



Masajeak
Akupuntura
Homeopatia
Naturopatia

Gorosabel 36 - I.D. • © 943654255-943 671635 • TOLOSA

Jose Luis Bihotza

IRURITA RUBIO

HORTZ KLINIKA

DONEZTEBE

Rosa Seminarioa, 19
948 450 267

LEITZA

Manuel Lasarte, 7
948 610 713

LARUN

Hortz klinika

Guy RANDE Doktorea
HORTZ ZIRUGIAN DOKTOREA

ORDUTEGIA

Astelehen, ortzegun eta larunbatetan,
arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara.

San Esteban, 37 behea • © 948 631057 • BERA

DATUAK.....

❖ 64 urterekin, itzal haundiko gizona bihurtu da Ipar Euskal Herrian. 1983tik Sarako alkate edo auzapeza da, eta urte hortan bertan Euskal Departamentuaren aldeko Hautetsien lehendakari aukeratu zuten.

❖ Euskal Departamentua eskatzeko manifestaldian parte hartu zuen urtarrilaren 30ean, Iparraldean inoiz egin den manifestaldirik haundienean.

❖ Hainbat partidu politiko eta elkarte desberdinek bat egin dute helburu horrekin, eta horregatik itxaropentsu egoteko arrazoiak badirela uste du Aniotzbeherek.

✍ **Jean ANIOTZBEHERE** *Sarako auzapeza eta EAJ-PNVko kidea*

“Eskual Departamenduak gure nortasuna zainduko luke”

HELETAKO BILKURA ETA BAIONAKO MANIFESTALDIAREN ONDOTIK, IPARRALDEAN EUSKAL DEPARTAMENTUAREN ALDEKO MUGIMENTA INOIZ BAINO HAUNDIAGO DELA IDURI DU. HALA DA?


Ez da sekulan izan orain bezainbat hautetsi departamentuaren alde agertzen direnak. Gero eta hautetsi inportagoak, gainera. Iduri du Lizarrako hatsa emendatzen ari dela iparraldean.

Helburu hori onartu dute abertzaleek eta sozialistek ere. Hala ere, sozialistek ez dute ongi onartu gu harremanetan sartzea Euskal Herriko Udalerrien Biltzarrekin. Hor aitzakia atxeman dute Departamenduaren alde sobera indarrik ez egiteko, baina petto bat egin dute. Harremanetan sartze hori ez baita nahasten ahal eskual departamenduari helburuekin.

NOIZ UKANEN DA ARRAPOSTUA FRANTZIARAKO GOBERNUTIK?

Ez dute hitz emanik hortan. Beti erraten dute ahal duten indarra egiten dutela. Baina, hauteskundeetan denek hitzematzen dituzte sekulako ondorio onak eta gero, ministro direlarik, nahiago dute hitzak ahantzi.

Hala ere, iparraldean ari da sortzen nahia,



«Departamentuak ez gaitu Frantziatik urruntzen, baizik eta hurbiltzen».

eskual gogoia, eta hori Departamentua baino inportanteago da. Demokrazia ez baita gogoaren kontra gaten ahal luzaz.

EPE LABURREAN DEPARTAMENTUA LORTZEKO MODUA IKUSTEN DUGU, BERAZ?

Ez dakigu. Badugu 200 urte eskatzen dugula, baina ikusten dugu aitzina doala, eta horrek itxaropenez bete-

tzen gaitu. Gukez dugu ikusten gure burua Frantziatik aparte, ez dugu hori amesten ahal.

ZEIN LIRATEKE DEPARTAMENTUAK EKARRIKO LITUZKEEN ABANTAILA NAGUSIAK?

Batetik, gure nortasuna zainduko luke. Erran behar da ez garela bakarrik frantsesen meneko, baita biarnesen meneko ere, eurek baitute gehiengoa.

Bertzetik, aurrekontuak guk egin ahal izatea. Nahi dugu euskara atxiki? Hunenbertze emanen dugu. Baina orain ez dugu batere ma-

natzen.

Eskual Departamentu batekin ez gara Frantziatik urruntzen baizik eta hurbiltzen. Orai Suprefeta dugu eta gero Prefeta izanen genuke. Horregatik, 77an departamentuaren afera sortarazi genuelarik hementxo abertzaleak kontra ziren. Orai ikusi dute hori deus baino gehiago litakela. Eurentzat pauso bat da, guretzat, berriz, aski. Gerokoek egin dezatela nahi dute, baina nahi ginuke lurralde bat utzi, hizkuntza bat utzi, guk atxeman dugun bezala.

TESTUA:
ASIER GOGORTZA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

► *“Iparraldean eskual gogoia sortzen ari da, eta hori Departamentua baino inportanteago da. Demokrazia ez baita luzaz gogoaren kontra gaten ahal.”*

OSASUN ZERBITZUAK

Lau pediatria daude 3.156 haur atenditzeko

Nafarroako Iparraldean, Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitzaldean, 15 urtez beheitiko 3.156 haur daude. Haur guzi hoiek 5 zentru desberdinetan atenditzen dituzte, eta lau pediatrik dute lan horren ardura. Pediatren aferarekin hautsak pittin bat harrotu dira azken boladan, batez ere Bortzirietan egin dituzten ordu aldaketengatik. Etxalar eta Lesakako alkate eta Bortzirietako Osasun Kontseiluko ordezkariak diren Miguel Mari Irigoien eta Jose Luis Etxegarai haserre agertu dira ez zaielako aldaketa hoien berri eman.

TESTUAK: ASIER GOGORTZA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

Orain arte, 15 urtez beheitiko Bortzirietako 1.018 haurrak Lesakako Osasun Zentruan atenditzen zituzten, baina otsailaren hasieraz geroztik Beran ere kontsulta pasatzen du egun erdiz. Hamabortz urtez beheitiko 487 haur daude gaur egun Beran, eta aipagarria da orain arte pediatriarekin egoteko Lesakaraino mugitu behar izaten zutela aldiro. Lesakan goizeko 8,15etatik 9,15era izaten da

errebisioen ordua, eta 9,30etatik 11tara, berriz, kontsulta ordua. Zita eskatzeko, goizeko 8,15etatik 9,15 arte deitu behar da (948 638 000). Berako kontsultak, aldiz, astelehenetik ortziralera, eguerdiko 12etatik 13etara izanen dira, baina goizeko 10etatik 11tara deitu beharko da zita eskatzeko (948 625 021). Edozein gisaz, ordutegi horrekin ez daude sobera kontent Berako gurasoak, eguerdiko ordu hoietan haur jaioberriek siesta egiten dutelako. Horregatik, oraindik bada haurrarekin Lesakako kontsultara joaten denik ere. Ezin denen gustora egokitu.

Kezka sortu da pediatriaren orduak murrizteagatik

Lesakako alkate Jose Luis Etxegaraik ere ez ditu begi ikusi pediatriaren ordutegian egin diren aldaketak, batez ere, Bortzirietako Osasun Kontseiluari abisatu gabe egin direlako (bera da lehendakaria): «*Osa-sunbideak, Lesakako pediatria lau orduz Berarat eraman du, Igantzi, Arantza, Etxalar eta Lesaka bertze lau ordurekin utziz. Guk egunkarrietan leitu ditugu aldaketa horiek*». Etxegaraik egoera hori kritikatu egin du, eta Berako kontsultarako pediatria berri bat kontratatzea ikusten du aterabide bakarra. Osasunbideak, aldiz, Bortzirietan egin duten aldaketa hori lana antolatzearen ondorioa dela adierazi du, herritarrei zerbitzu hobea emateko asmoz, beti ere.

Jakin ahal izan dugunez, Bortzirietako Osasun Eskualdeko Zuzendaritza, Lesakako alkatearekin harremanetan jarri zen gai honi buruz mintzatu eta gauza bat eskatzeko: ea Bortzirietako Osasun Kontseilua konbokatzen ahal zuen azken aldaketez informa-



Osasun Etxe berritua Beran

Urtarrilaren 30ean inauguratu zuten ofizialki Berako Osasun Etxe berritua. 7 hilabeteren buruan, ia 38 milioi gosta diren lanak akitu dituzte, eta medikuaren kontsulta lehengo lekura itzuli da. Berrikuntza nagusi bezala aipatu behar da pediarraren kontsulta jarri dutela martxan. Kontsulta ordua eguerdiko 12etatik 13etara izanen da, eta ordua eskatzeko telefona, be-

rriz, 948 625 02 (10etatik 11etara deitu).

Ezaugarriak:

Osasun Etxea zabalagoa da orain: mediku bakotzak bere bulegoan izanen du, eta erizainek beren kontsulta-gela. Gainera, larrialdietarako gela bat, odol-ateratzeak eta elektroak egiteko bertze bat, harre- ra, egongela, liburutegia, biltegia eta komunak ditu.



tzeko. Baina Etxegarai Kontseiluko lehendakaria izanik, ezezkoaz erantzun zuen, ez zuela konbokatuko. «Ez dut Kontseilua bilduko pasatu dena esplikatzeko soilik, kontseilua biltzen badut erabakiak hartzeko izanen da». Momentuan ez dira ados jarri, beraz.

Pediatren ordutegiak bertze tokitan

Hasieran aipatu dugu Nafarroako Mendialdean lau pediatria ari direla lanean; Elizondon, Donezteben eta Leitza bana,

eta Bera eta Lesakan bertze bat. Leitza, Goizueta eta Aresoko haurrak Leitza Osasun Zentruko pediatriak atenditzen ditu, baina astean hiru egunez bakarrik: astelehen, asteazken eta ostiralean. Kontsulta ordua, berriz, goizeko 11etatik 2etara izaten du. Txanda eskatzeko 948 610617

eta Bera eta Lesakan bertze bat. Leitza, Goizueta eta Aresoko haurrak Leitza Osasun Zentruko pediatriak atenditzen ditu, baina astean hiru egunez bakarrik: astelehen, asteazken eta ostiralean. Kontsulta ordua, berriz, goizeko 11etatik 2etara izaten du. Txanda eskatzeko 948 610617

telefonora deitu behar da. Elizondon, Baztan guziko haurretaz gain, Urdazubi eta Zugarramurdikoak ere hartzen ditu pediatriak. Bertze toki gehienetan bezala, goizeko 9etatik 11ak arte errebisioen or-

PEDIATRIA ZERBITZUAK NAFARROAKO IPARRALDEAN

ZONALDEA	KONTSULTATEGIA NON?	HAUR KOPURUA	ZENBAT EGUNEZ?	PEDIATRIA ERIZAINA
Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi Bera	ELIZONDO BERA	932 487	5 5	BAI BAI
Lesaka, Igantzi, Etxalar, Arantza	LESAKA	531	5	BAI
Malerreka (Labaien, Ezkurra, Sunbilla...)	DONEZTEBE	724	5	BAI
Leitza, Goizueta, Arano eta Areso	LEITZA	482	3	T.B. ⁽¹⁾

(1) T.B.: Taldearekin Banatua. Honek erran nahi du erizain arruntaren lana egiteaz gain hurrei txertoak-eta jartzen ere aritzen dela.



KOMERTZIO ASEGURUA



Zure komertzioko zaindaria

Aseguru bikaina

Zure negozioa ez da bertzeak bezalako, zure izaerak eta lanak ezarritako ezaugarriak baititu.

Zure beharrak ere ez dira bertzeenak bezalakoak.

Komertzio Aseguruan zure zure nahi dituzun garantiak aurkituko dituzu.

ASCAT-MNaren Komertzio Asegurua, zure neurria egindako aseguru da.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leizta,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Nafarroako Euskararen Kontseilukideen kargu uztea

Lorontzi baten gisa itxurarako bakarrik egoteak ez zuen zentzurik



Andres INIGO

Kontseilukide-ohia. Ituren

Kontseilua uzteko gure arrazoi nagusia bere funtzionamendu eskaxa

izandu da, baina azkeneko erabakia hartzera bultzatu gaituena Euskalerrria Irratiari lizentzia ukatzea izan zen. Iruñean lizentzia bat erdarazko irrati bati eta bertzea euskarazko bati ematea aholkatu genuen bere garaian, gure ustez hori baitzen gizartearen nahia. Baina hori ez ziguten inolaz ere onartu. Halere, euskara gehien erabiltzen zuen irrati gehiago puntuatuko zutela erran ziguten, eta horixe izan zen bete ez zuten hitza. Kontrakoa egin zuten, eta hori oso larria iruditu zitzaigun. Alde horretatik, orain dimititu dugunak engainatuta sentitu ginen, eta dimititu egin genuen ez baitzuen inolako zentzurik hor lorontzi baten gisa itxurarako bakarrik egoteak.

Dimisioaren ondoren betiko leloa erabili zuten, egin duguna presio politikoa dela, alegia. Euren politikoa profesionalak direla kontuan hartuta, argumentu hori erabiltzea oraindik tristeagoa dela uste dut.

Pixkanaka bada ere, kultura mailan gizarteak euskararen aldeko bidea hartu du. Baina "ideologo" batzuk ikaragarriko erasoak egin ari dira euskararen kontra, eta nik uste dut hori urduritasunaren seinale dela.

Legez kontseiluko kide izaten segitzen dute

Juan Ramón ELORZ

Kontseiluko idazkaria

Ni ez naiz kontseiluko kidea, idazkaria baizik. Horregatik, ezin dut Gobernuak egin duena baloratzen hasi.

Orain, kontseiluak funtzionamenduan segitzeko ez dakit gobernuaren ideia zein den. Bakarrik esan dezaket dimisio hori indarrean egoteko gobernuak egin behar duela erabaki konkretu bat. Kontseilukideak izendatzeko gobernuak erabakitzen du, eta kontseilutik kentzeko ere berdin. Beraz, legez kontseiluko kideak izaten segitzen dute.

Hoietako sei pertsona famatuak edo ezagunak dira, eta bertze sei erakunde edo elkarten ordezkariak. Azken kasu honetan elkarre horiei galdetu behar zaie ea zer egin nahi duten; Gobernuak Eusko Ikaskuntzari, adibidez, kontseiluan jarraitu nahi duen galdetu beharko dio, baina ez dakit noiz eta nola galdetuko dion. Kontseiluak aurrera jarraituko duen Nafarroako Gobernuari galdetu beharko litzaioke.

Gaur egun formalkie dago Quorumik bilkurak egiteko, beraz, ezin dira egin. Orduan, bertze batzuk izendatu-edo... ez dakit gobernuak zer egingen duen.

Giro politikoa orohar hartuta ulertu behar da UPNren jarrera erasokorra




Fermin ALTZUGARAI

Kontseilukide-ohia. Lesaka

Kontseilua 1996an osatu zen, eta hiru urte hauetan 2 urte baino guttiago funtzionatu du. Lehendabiziko urtea, Otxandorena garaian, blokeatua egondu zen, eta orain, UPNren garaian oso epel funtzionatu du. Momentu honetan 12 lagunek dimititu dugu, baina dimititu ez dutenak aipatzea merezi du, zergatia ulertzeko: bata Euskaltzaindiako burua da, Haritchelari, eta kontseiluaren berezko partaidea denez, ezin du dimititu. Bertze bi dira Nafarroako unibertsitate publiko eta pribatuko ordezkariak, eta gainontzeko 5ak Nafarroako Gobernuak dira. Beraz, UPNkoak edo hoi konfidantzazkoak.

Kontseiluaren barrenean ez zeuden eroso, eta bilerak egin aldiro ikusten genuen giro hori. Agian, mesede bat egin diogu Sanz jaunari eta UPNri, baina gu koherentek izandu garaela uste dut. Giro politikoa orohar hartuta ulertu behar da UPNk azken boladan euskararen kontra agertu duen portaera. Euskal kutsua duen edozein gauzarekin kristoren trauma dauka Sanzek.

Baina Nafarroako gizarteak askoz ere onarpen gehiago du Gobernuak erakusten duena baino. Orduan, neri ulergaitza egiten zait, ezin baitaiteke gizarteak onartzen duen gauza baten kontra joan.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050


BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA



Iñauteriak

Joseba OLAGARAI

Neurria: Aita izena

*Iñauteriak iritsi dira
poztuz denoi bihotza
orain kanpora irtengo zaigu
alaitasunaren hotsa
baina badaukat buru barnean
arazo oso zorrotza
zein izango den jantzi denetan
nirtzako aproposa*

*Sorgin, pirata edo pailazo
hainbeste bira denekin
nik eramango dudan jantzia
horixe nahi nuke jakin
baina pentsatzen hasi ezker
gaur konponbidearekin
nahiko mozorro ez ala daukat ba
neronen buruarekin?*

Landa-Etxeen
Federazioa dela eta
Hiruak Bat
elkartearen oharra

Hiruak Bat Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 246. zenbakian agertutako informazio bat ezeztatu nahi du. Baztaneri dagokion zatian, Ramon Apezetxeak Landa Etxeen Federazioa desagertu dela dio, baita Nafarroako Gobernuak Federazioa berriz osatzera behartzen gaituela ere. Hau ez da hain zuzena.

Egia da, Federazioa dela eta, arazo larriak daudela eta Hiruak Bat landa Etxeen Elkarteko bileretan ere gai garrantzitsua eta eztabaidagarria izan dela azkeneko urtean. Momentu batean Federazioaren funtzionamendua erabat gelditu zen eta Hiruak Bat Elkartek, iniziatiba propioz, pausu bat baino gehiago eman du hau konpondu nahian.

Horrelaxe, Nafarroako Gobernuko Turismo Sailako arduradunarekin (Ana Lizarraga) bilera eskatu genuen, honek zein iritzia zuen jakin genezan.

Ana Lizarragak hauxe zion:

1.- Federazioa, erakunde bezala, ez da behar beharrezkoa edo derrigorrezkoa, baina kanpora begira, irudi ona ematen du, hau

IRAKURLEAK MINTZO

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makinaz idatzitako
25 terro baino
luzeago idaztea
gutun hauetan.
Idatzi duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea
eta Nortasun
Agiriaren fotokopia
agertu beharko
dira. Laburtu
beharra izanez
gero, **ttipi-ttapa**
bere esku izanen du
horretarako
eskubidea.
Ez dira
argitaratuko beren
nortasuna agertzen
ez digutenen
iritzirik.*

da, elkartasuna.

2.- Edozein gestio edo mobilizazioetan landetxe guztiak elkar-tzen dituen erakunde baten medio, gauzak lortzea errexago izan daiteke.

Hau argituta, jakin ezazue, laister Nafarroako gainerako Landetxe Elkarrekin bilera izanen dela eta proposamen zehatz batzuk daudela, Federazioa suspentsu horretatik atera dadin. Hala ere, informatuko zaituztegu.

HIRUAK BAT ELKARTEKO
ZUZENDARITZA BATZORDEA



ttipi-ttapa telebistaren programazioa

ASTELEHENA, 15

13:00 **Herriz Herri:** Herrietako berrien bilduma herri ba-koitzeko berrimailen eskutik.

21:00 **Jokoa Solas:** Kirol emaitzak eta berriak.

21:30 **Iñauteriak** (Bera eta Lesaka)

ASTELEHENA, 22

13:00 **Herriz Herri:**
21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Asteburuko kirol jardueren errepa-soa.

ASTEARTEA, 16

13:00 **Jokoa Solas** (errepika)

13:30 **Iñauteriak** (errepika)

21:00 **Iñauteriak** Etxalar eta Goizuetako iñauteriak.

ASTEARTEA, 23

13:00 **Berriak**
13:30 **Jokoa Solas**
21:00 **Berriak**

ASTEAZKENA, 17

13:00/13:30 **Iñauteriak** (errepika)

Arratsean iñauterietako irudirik hoberenak izanen dira ikusgai.

ASTEAZKENA, 24

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzetan** Kultur eta gizar-te gaiei buruzko magazina.

ORTZEGUNA, 18

Arratsean iñauterietako irudirik hoberenak izanen dira ikusgai.

ORTZEGUNA, 25

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzetan** (errepika)
21:00 **Berriak**


ORTZIRALA, 19

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)

21:00 **Herriz herri**

ORTZIRALA, 26

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Herriz Herri** Herrietako berrien bilduma herri ba-koitzeko berrimailen eskutik.



ttipi-ttapa ZOZKETA

Hauexek dira ttipi-ttapa zozketako zenbaki saridunak. Oparia eskuratzeko deitu 948 631 188 telefonora, zerrendan ageri diren lagun hauek egin duten bezalaxe.

DENDA	OPARIA	IRABAZLEA
Agara Kiroiak	Adidas Mendi Zapatilak	14227
Alustiza Lurrindenda	Kolonia	13540
Amaiur Altzariak	Xigorgailua	07329
Ayla Argazkidenda	Bi argazki makina	14412
Azalea Lorendenda	Landare bat	06507
B. Almandoz Zapatad.	Zapata pareta	04275
Bidaxka Ostatua	2 plater konbin. eta 2 trago	10293
Bittiria Harategia	2 Kg. Txorizo - 2 Kg. txistor	04781
Blas Liburudenda	3 liburu	Miren Bidegain
Deñe Lentzeria	Pijama bat	00822
Diaz Liburudenda	2 errotuladore sorta	015616
Dirdir Oparidenda	Pelutxe bat	12023
Edurne Haur Arropad.	Pijama bat	00886
Elena Arropadenda	Ator bat	11324
Elena Jostailudenda	Futbol baloia	01560
Errekalde Ostatua	4 ogitarteko eta 4 trago	00965
Etxarte Erlojudenda	Casio Databank Erlojua	M ^o Angeles Amiano
Fagoaga Harategia	Urdaiazpiko bat	05642
Faidel Ostatua	Musika CD sorta	06183
Goiko Argazkidenda	Nikon EF300 argazkimak.	M ^o Carmen Maritxalar
Goizargi Jantzidenda	Eskuoihal sorta	Juan Igna. Etxepare
Goñi Zapatadenda	Zapatilla pareta	Liria Asensio
Igone Paperdenda	Liburu bat	04079
Inaxio Janaridenda	6 botil Cava	Pakita Inda
Iparla Kiroiak	Kirol zapatilak	06784
Izeta Erlojudenda	Erlojua	08653
Izoztuen Etxea	Tarta izoztua	13701
Jabier Elektrogailuak	Idazmahaiko lanpara	12621
Kalash Bitxidenda	Gizonezkoen erlojua	Martin Goikoetxea
Kalash Erlojudenda	Emakumezkoen erlojua	01834
Kamamila Oparidenda	Lanpara	02832
Koxkila Ostatua	Irudi apaingarriak	08028
Labekoak Goxotegia	2 dozena kanutillo	Izaskun Bazterrika
Lakanbra Motoak	Kasko bat	Kontxita Larralde
Legarra Liburudenda	Liburu bat	Nekane Inbuluzketa
Mareli Jantzidenda	Levi's galtzak	01037
M ^o Cruz Lentzeria	Pijama bat	Enara Mitxelena
Marixus Elektrog.	Musika Katea	02430
Martzutzak Oparid.	Jertsea	M ^o Angeles Narbarte
Martin Arraztoa Motoak	Bizikletarako neurgailua	10543
Merka Opari Oparid.	Portzelanazko pampina	09352
Miguel Jatetxea	4 lagunendako afaria	08671
Nafarroa Artisaudenda	Egutegia	M ^o Dolores Miñana
Natura Etxea Belard.	Natur Kosmetika Zentrua	11006
Oihana Jantzidenda	Barnejantzi sorta	03764
Ostargi Optika	Eguzki antiojuak	04325
Ostiz Zapatadenda	Zapata pareta	Begoña Apeztegia
Prieto Estankoa	Don Julian puro kaja	06901
Pui Ostatua	2 oilasko erre eta 2 trago	14410
Radio Bidasoa	2 xigorgailu	13166
Retegi Gozotegia	Kg. 1 txokolte - Kg. 1 pasta	08003
Saski Berri Ostatua	2 kamiseta, 2 bokata, 2 trago	00902
Sobrino Kiroldenda	Hondartzarako boltsa	04731
Txirista Haur Jantzid.	Txandala	Maitze Inza
Zizka Ostatua	2 kilo zigala	Miren Elortza

IRITZIA

KOLABORAZIOA

Julian IANTZI EAJ-PNV, Lesaka.

Euskal Herriko Udalerrien Biltzarrari buruz



EAJ-PNVk uste du, herri europar bezala Euskadiren burujabetza eta instituzionalizazioa lortzeko,

EAE, Nafarroa eta Iparraldeko gehiengoaren elkarlanetik etorriko dela. Bidea luzea da, baina Europaren hedatze atarian gauden honetan, euskal komunitate politikoak –nahiz eta egun Europar Batasuneko zati izan– beste Estatuei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituela frogatu ahal izango du.

EAJ-PNVrentzat bide honetan sobran daude bidezidorrak. Sobran indarkeria eta boluntarismoa. Konbentzimentuaren bidez euskaldunen gehiengo gure egitasmora erakartzea da benetako bidea. Ziur gaude, borondate hori publikoki adierazi ezker, inork ezin izango duela indarrez galerazi. Gaur egun bizi dugun egoera honetan eraikuntza nazionalen urrats sendoak eman ditzakegu. Zentzu horretan, Udalerria oso erreferentzia garrantzitsua bihurtu da, euskal lurralde guztietan presentzia duen erakunde juridiko-politiko bakarra delako.

Egungo errealitate instituzionaletik abiatuta, Euskal Herriko hiritarren partehartze libre eta borondatezkoa errespetatuz bide hau urratzen jarraitu nahi dugu. Gure komunitateak –politikoki, kulturalki, soziologikoki edo ekonomikoki– dituen ezauzgarriak kontuan hartuta, ondoko gai hauen inguruan kolaborazioa bultzatzea proposatzen dugu: hizkun-

tza, kirola, ingurugiroa, lurralde antolaketa, turismoa, garapen ekonomikoa, gizarte ongizatea, elkartasuna.

Udala borondateak bildu eta batzeko Erakundeak da. Bereak dituen zereginak eta helburuak gutxitu gabe eta bereak ez diren ardurak hartu gabe, uste dugu egoera honetan eman daitezkeen urratsak oso lagungarriak izango direla gure herrira behin betiko bakea ekartzeko. Esan beharrik ez dago Euskal Herria berrartikulatzeko ahalegin honek ez diela inolako inposaketarik eragingo herri-

Gaur egun bizi dugun egoeran eraikuntza nazionalen urrats sendoak eman ditzakegu.

Zentzu horretan, Udalerria oso erreferentzia garrantzitsua bihurtu da.

alde ezberdinetako euskaldunnei. Borondatezko atxikimendu bat lortu nahi da, arau demokratikoak erabat errespetatuaz. Euskal Herriaren eta euskal hiritarren aniztasuna kontuan izanik soilik hedatu ahal izango dugu gure lurraldetasunaren aldeko apustua.

Horregatik, joera guztietako alkate eta zinegotzietatik elkarrekin lan egiteko deia egiten die EAJ-PNVk, bereizten gaituzten kontuak alde batera utzi eta amankomunean ditugunak sakonduz. Lurralde guztietako euskaldunnei zabaltzen zaizkien aukerak bultzatu nahi ditugu, hitz batean, eraikuntza nazionalari bultzada eman, beti ere, gure oinarriak izan diren askatasun eta elkartasunean.

o h a r r a

Saridun suertatu bazara, OTSAILAREN 15a duzu saria biltzeko azken eguna. Gogoratu saria jasotzera joan baino lehen TTIPI-TTAPAPA deitu behar duzula: 948 631 188.

Eskatu lehenbailehen zure
TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu
ematen dituen abantaila guztiak

948 631188



PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 99ko otsailaren 5a

«Aritzakunen asko jende bizi zen, 230 edo ezagutu ditut. Urritzaten izanen ziren 150 lagun, 22 baserri ziren eta Aritzakunen 26 ziren. Eta orain dena hustuta dago. Ematen dit pena izugarria».

«Beti mendia maite izan dut, ez dut sekula herria maite izan. Beti mendia, mendiko frankiltasuna...».

Mailux Etxebes

Sumusua bentako maizterra.
Aritzakun
Diario de Noticias 99-01-28

«Eskuz banakako txapelketarik ez izatea da pilotarentzat makurrena».

Julian RETEGI

Pilotaria. Eratsun.
Diario de Noticias 99-01-28

«Guretzat, pilotarientzat, ona da enpresen arteko kompetentzia izatea. Afizionatuentzat desberdina da. Denak denen kontra ez aritzean espektakulua murrizten da».

Mikel GOÑI

Pilotaria. Oronoz.
Diario de Navarra 99-02-04

◆ **Errugbia ala futbola nahiago?**

◆ Errugbian jokatzeko bainan futbola nahiago dut.

◆ **Zoin da zure talde faborittoa?**

◆ Futboleko erreala eta errugbian Miarritze.

◆ **Fandangoa dantzatu ala 'Hemendik A!' en musika?**

◆ Nere egoeraren arabera.

◆ **Herriko bestak ala ihauteriak?**

◆ Giro desberdina da, baina nahiago ditut ihauteriak.

◆ **Zertan moztortuko zara aurten?**

◆ Apez gaita jolea.

◆ **Zer da erosi duzun azken diskoa?**

◆ 'Ampanoia' rena.

◆ **Norat joanen zinateke gogotik oporretarat?**

◆ Ipar Irlandara.

◆ **Zer eramanen zenuke zurekin?**

◆ Ikurriña bat.

◆ **Jateko gustokoena?**


◆ Ahate konfita.

◆ **Bizio bat?**

◆ Igande arratsaldea telebista aitzinean pasatzea erdi lo.

◆ **'Sara, Frantziako herri politenetako bat' diote herriko sarreteran diren karteak. Hala ote da?**

◆ Ez, Sara Euskal Herrian da!

**Xan HARRIAGUE**

SARA

Errugbilari, dantzari eta gaiteroa

Bestarik behar bada
bego gure herria
betikoa du fama
du fama ongi merezia
bertzetan ez bezala
hemen gazteria
amaren sabeletik
dator ikasia

**Aupa
iñauteriak!**



Tfnoa: 948630259 - BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



**ZUBIRIA
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

KULTURKARI**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egingen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

© **948 63 11 88**

Kontrapasa ehizia baimendu du Nafarroako Gobernuak

Otsailaren 14tik martxoaren 14ra 3.000 uso botatzen ahal dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako ehizi postuetan kontrapasan datozen usoak ehizatzeke baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Ingurugiro Departamenduak. Honela, 584 postuetan 3.000 uso bota ahal izanen dira gehienez, otsailaren 14tik martxoaren 14ra.

Ehizi-postu bakoitzean bi pertsona egoten ahal dira eta pertso-

na eta eguneko lau uso baino gehiago ezin izanen da harrapatu.

Ingurugiro Departamenduaren Foru Aginduan ageri denez, eguzkia ateratzen denetik gordetzen den bitartera usoak –eta usoak bakar bakarrik– ehizatu ahal izanen da. Martxoaren 14a baino lehen 3.000 uso bota baldin badira, ehiza denboraldi hau akautuko litzateke.

Neurri hauek betetzeko, koto bakoitzak pertsona bat kontratatu beharko du, egunero harrapatutako hegaztien kopurua zehaztuko duena. Datuok guarda batek bilduko ditu eta egunero Ingurugiro Departamendura igorriko ditu.



Nafarroako EHren aurkezpena

Otsailaren 3an aurkeztu zen Iruñean EH-Nafarroa, ekimen politiko «*aurrerakoi, abertzale eta zabal*» berria. Ekimena martxan jartzen ari den Talde Eragileak plataforma berriaren oinarriak biltzen dituen agiria plazaratu zuen, arlo ezberdinetan lanean ari diren 137 nafarren sinadurarekin. Horien artean, Mikel Iarregi (UEMA), Angel Garcia de Dios (Diputazioko sailburu ohia), Patziku Perurena idazlea edo Kristina Urrutia kazetaria zeuden.

Euskal Udalerrien Biltzarrak eztabaidatu dute alkate independententek

Iruñeko bilerara azaldu edo ez erabaki behar zuten

TTIPI-TTAPA

Talde independenten aurkeztutako Baztan-Bidasoako hamabi alkate eta zinegotzi bildu ziren otsailaren 1ean Igantzin, la-

runbat honetan Iruñean burutu behar zen Euskal Udalerrien Biltzarrera agertu edo ez erabakitzeke. Donamaria, Urrotz, Saldias, Ezkuz, Zubieta, Bera, Igantzi, Etxalar, Arantza eta

Oizko ordezkariak azaldu ziren bilerara.

Bertan erabaki zenez, udal ordezkari bakoitzak erabakiko du PNV, EA eta EHk deitutako biltzarrera agertu edo ez.



GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

Xingil
cleapaindegia
★★★★★★★★★★★★★★★★
© 948631462 • Altzate 1 • BERA

ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

Dia %
Autozerbitzua
deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
© 948631403 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutzozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
© 948630155
BERA

Herriko bidea moldatzeko obrak bortz hilabetez luzatuko dira

Iñauteriak larunbatetik asteartera ospatuko ditugu

ASIER GOGORTZA

Joan den hilabetearen hondar aldera hasi ziren herriko zeharbideta moldatzeko obrak, eta orduztik kaos tiki bat bizi dugu Berako erdigunean. Errepidea hankaz gotti dago obregatik, eta uztaila bitartean bederen horrelaxe segituko du, baina, egia erran, bazuen noizbait moldatzeko beharra. Konponketak Agerratik hasi eta Altzateko plazaraino doaieen bidean egingen dira batetik, baina baita Euskaldunako gurutzetik "Telefonikako etxeetaraino" ere.

Karretera konponetzeo egiteko diru guzia Nafarroako Gobernuak paratu du, baina bertzeko gastu batzuk Udalaren gain joanen dira. Errate batera, euriurak eta ur-zikinak bereixteko tuboak jarriko dituzte Itzea etxetik Legia karrikako sarreraraino. Obra honen erdia Herriko Etxeak pagatuko du eta bertzeko erdia Gobernuak.

Bi errotonda egingen dituzte

Herritik pasatzen den bideak itxura berria hartuko du obrak akautzen direlarikan. Gaur egun herrian izaten diren trafiko



Ongi etorriak

Bi hilabete eskasen buruan herriko hiru presoak herrirat itzuli dira: abenduan Joxelu Etxeberria libratu zuten, eta 1999ko hiltzetan, berriz, irudietan ageri diren Jose Luis Sebastian eta Josu Unsiñon. Azken bi hauei urtarilaren 27 eta 28an egin zitzaieen ongi-etorria. Dena den, Sebas zalaindarra sei egunez bakarrik egondu da gure artean, berriz itzuli baita Langraitzeko gartzelara. Behin-betiko askatasuna tramitatzatzen den bitartean hantxe egon behar du esperoan. Argazkia Zalainen egin zitzaion ongi-etorrian ateria da.

Behetikaldean ilobarekin ikusten dugun Josu Unsiñoni, berriz, Posta-etxearen parean egin zitzaion harreara, euri erauntsi izugarrien artean. Ongi etorriak izan daitezela, bada, eta ea herritik falta diren bertze lagunak ere lehenbailehen gure artean ikusteko modua dugun.

ko arazoak saihestea da moldaketa hoiien helburua. Alde batetik, koartelaren pareko bidegurutze hori errotonda bihurtuko dute, eta Agerrako semaforoak dauden tokian bertze biribilgune bat jarriko dute.

Bertzalde, orain eskas diren seinaleak izanen dira bidean eta bide bazterrean: Zebra pasabideak, erdiko marrak, eta Eztegara pasealekuan, beharbada, iparraldean *gendarme etzanak*

deitzen dituzten hoieta-ko tontorrak, abiadura tikian joatera behartzeko.

Altzateko plazan adokin gisako porlana paratuko dute

Moldatzen hasita, Altzateko plazako zola guzia altxatu eta berria jarriko dutela erran digu alkateak. Legia karrikan bezalako porlana paratuko dute, adokin itxuratu duena.

flash

Guatemalari buruzko erakusketa

eginen da Kultur Etxean otsailaren 22tik 27rat. Arratsaldeko 5,30etatik 8etara egonen da idekia.

Ttipi-ttapa telebistari laguntza

Jakinen duzun bezala, TTIPI-TTAPA TELEBISTA larri ibilki da diruz, eta denen laguntza behar du aitzinera segitzeko. Otsailaren 22rako 6 milioi pezeta biltzea da helburua. Diruz laguntzeko prest bazaude TTIPI-TTAPAKO bulegora etorri eskuratu ematen ahal duguzu, edo nahiago baduzu bankuan sartzen ahal duzu: Nafarroako Rural Kutxan, Nafarroako Aurrezki Kutxan, Euskadiko Kutxan eta Iruñeko kutxan ditugun kontu korronteetan.

Iñauteriak larunbatean hasiko dira kaldereroen bisitarekin

Otsailaren 13an hasiko dira iñauteriak herrian, kaldereroen etorrerarekin hain zuzen. Erran behar da aurten aste batez gibelu dela kalderero eguna. Biharamonean, berriz, iñude eta artzaik ibiliko dira herriko karriketan barna dantzari eta kantu-kantari. Ilunabarreko 7etatik 11 etara Laiotz taldearekin berbena izanen da Altzateko plazan.

Hilaren 15ean, ohiturari eutsiz, herrian eta baserrietan zingar-arrautze eskean ateriko dira moztoko koadrilak, eta ilunabarrean besta giroan sartuko gara bete-betean. Igande bezala, musika izanen da Altzatan, oraingo honetan Lisker eta Txalaparta txarangaren eskutik.

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

LAIOTZ
ileapaindegia
Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etara
Kanttonberri, 4 • BERA • Tel.: 948 631427

LESKA



Lopez, Zelaieta eta Silveira garaile Bortzirietako bertso txapelketan

Juan Mari Lopezek, Julen Zelaieta bertarrak eta Xabier Silveirak osatutako hirukoteak irabazi du Bortzirietako bertso eskolak antolatutako txapelketa. Urtarrilaren 22ko finalean Bittor Elizagoien, Ekhine Etxepeteleku eta Iñigo Olaetxea izan zituzten aurrez aurre. Astebete beranduago, bertso-trama ikusgarria eskaini zuten Igor Elortza eta Jon Maiak Arrano elkartean.

Argazkia: TTIPI-TTAPA TELEBISTA

flash

Hirigintza Udal Plana

onartzeko Nafarroako Gobernuak jarritzen zituen zenbait oztopo zirela eta, udalak ez-ohiko batzarra egin zuen urtarrilaren 21ean. Bertan, joan den urtean behin behineko onarpena jaso zuen Planari zenbait aldaketa egitea onartu zen ahobatez. Udalak testu berria hiru hilabetez aurkezteko hitza eman du eta Lurraldearen Antolamendua Departamenduari Lesakako Udal Plana behin betikoz onartzea eskatu dio.

Ttipi-ttapa telebistari laguntza

TTIPI-TTAPA TELEBISTA diruz larri dabilela jakina da, instituzioetatik ez baita us-te zena hartu, eta denen laguntza behar du aitzinera segitzeko. Zenbait bilera egin dira herrian arazoak solasteko eta paperak banatu dira, nahi duenak bere laguntza eman dezan. Diruz laguntzeko prest bazaude, papera bete eta TTIPI-TTAPAKO bulegora igorri edo Nafarroako Rural Kutxan, Nafarroako Aurrezki Kutxan edo Euskadiko Kutxan ditugun kon-tuetan sartu. Otsailaren 26rako 6 milioi bildu nahi dira.

Larunbatetik asteartera pertsonai aunitz izanen da iñauterietan

Zakozaharrak, mairuak, mozorroak, Goitarrak, Fraindarrak...

AITOR AROZENA

Egun handia igandea izanen da eta pertsonai famatuena zakozaharra, baina aurtengo iñauterietan bertze egun aunitzetan besta egiteko eta mozorratzeko aukera izanen da. Eta zakozaharraz gain, mairuak, mozorroak, Goitarrak eta Fraindarrak eta bertze hainbat pertsonai eta talde ikusiko dira.

Garai batean inor ez omen zen janzten, baina azken urteotan larunbat gauak indar handia hartu du. Lehenbiziko mozorroak orduan ikusiko dira eta Arranon, afaria antolatu dute Gazte Asanbladakoek. 2.000 pezetan, entsalada, arrain zopa, solomoa saltsan,



Goitarren taldea Katazpegi auzoan barna.

Artxibokoa

postrea, kafea eta kopa jateko eta edateko aukera izanen da gaueko

9,30etatik aitzina. Txartelak ortzirala bertarte hartzen ahal dira.

Larunbat gaueko bestondoaren eraginez, igande goiza motelxegoa izanen da, baina azken urteetan talderen batek edo bertzek plazaratzen du bere mozorroa. Arratsean, zakozaharren txanda izanen da. Musika bandaren laguntzaz karriz karriz ibiliko dira, ibilbidea plazan akautu arte. Gauean, plazako musika Gaubela taldearen eskutik etorriko da.

Astelehen eguerdian karrozak ikusiko dira herrian eta aditu dugunez, ikusgarri horietatik ez dira faltako. Base-ri auzoetan berriz, Fraindarrak eta Goitarrak ibiliko dira akordeoi eta krixkitin doinuak hedatzen. Bi talde hauek asteartean ere aterako dira.

BITTIRIA HARATEGIA
 © 948 627555
 Bittiria, 43 • LESAKA

ETXEBERRIA OSTATUA
 Plaza Zaharra • Lesaka
 © 948 637700

XATURBETXEA
JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

ANA
Janaridenda
 Bittiria, 41 • © 948637944
 LESAKA

ETXALAR

Hirigintza Plana berritu du Udalak hiribarnea Behekolandara hedatuz

Herriko Etxean ikusi ahal izanen da ondoko egunetan

PELLO APEZETXEA

Lehen Arau Subsidiarioak izenaz ezagutzen zenari, orain Hirigintza Plana deitzen zaio. Bertan markatzen da karrika eta etxe berriak non egiten ahal diren, etxe berriak egiteko eremua noraino hedatzen den, etabar. Bada, Plan hori berritu egin du Udalak. Zertan berritu? Behekolandan, hiribarnea edo hiri eremua araztegi edo depuradoraraino luzatu da, eta han egiten ahal diren etxeak eta karririk marraztu dira. Antsolokuetan ere badira berrietasunak. Hirigoienea ondoan zenbait etxeren tokia ageri da. Baita bertze aldean ere, Basatearen segidan. Goikolandan, berriz, aldaera batzuk egin dira. Dena den, ondoko egunetan, Herriko Etxeko goiko



Larraburua Zahar Etxe berrituak atekak zabaltu ditu

Aitzinekoan erran bezala, Larraburuko Zahar Etxeak atekak ireki zituen urtarilaren hondar egunetan, eta ikusi ahal izan genituen berriztatutako barrerak: borts logela, beraietatik bi bina ohatzekoak; sukalde berria, karretera aldera jotzen duena; egongela, lehen baino ederragoa, eta eskalera jarrita igaiteko aulkia. Ikusleek hamaiketako hartzeko aukera ere izan zuten, behean, erretiratuen biltokian.

gelan ikusi ahal izanen dira planoak, xehetasun guziki, etaherritarrek beren ereklamazioak egin ahal izanen dituzte, martxoaren 5a arte.

Herriko bizilagunak gutitu egin dira

Azkeneko lau urteetan beheiti egin du jende kopuruak. Orain ez gara 800era ailegutzen,

xeheki 791. Honen zergati nagusiak bi dira: jai bako bako gehiago hiltzen dira, banaz bertze 8-10 bat hiltzen badira, jaiotakoak 5era ez dira

ailegutzen. Hondarreko urteetan bertze gauza ere gertatu da, kanpoan bizi eta hemengo errol-dan zegoen hainbatek, baja eman du.

flash

- ❖ **'Gara'ren aldeko eskearen erreforma**
700.000 pezeta biltzea eskatu zitzaizkien etxalartarrei, baina halako bi eta gehiago ere bildu da, ia bi milioi pezeta. Eskea bultzatu dutenek, esker ona agertu nahi diete emaila guzietan.
- ❖ **1949an jaiotakoak**
beren 50. urtea ospatuko dute, otsailaren 14an.
- ❖ **TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN**
aldeko laguntza kanpaina ongi doa herrian. Egunetik egunera heldu dira laguntzak, eta eman nahi dutenek otsailaren hondarrerako beren izena ematea espero da.

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 948635290 **ETXALAR**

Lurrindeuda
Marian
Indiberrari
Estetika
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnua: 948 637 127
LESAKA

Mannel Zamorano
Bernizadurak
Pintura
orohar
Bittiria, 37 • LESAKA • ☎ 989 042 671

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduentzat
pentsurik egokiena
Tfnua: 948635214
ETXALAR

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - **LESAKA**

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK
Paregabeko idi-txuletak
Deitu enneserbak egiteko
Foto Goiko
Otsango auzoa, Tfnua: 948627503/948627519 • **LESAKA**

HARITZPE
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.


IGANTZI

Otsailaren 21ean izanen da azkenean pilotalekuaren inaugurazioa

Urtarrilaren 30ean izan zuten Zahar Etxekoek urteko batzar nagusia

OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 21ak egun handia izan nahi du igantziarrontzat: Pilotaleku berriaren inaugurazio eguna. Horretarako, azken ukituak eman eta gero, batzorde bat osatu du Udalak ekitaldiak antolatzeko. Zinegotziz, Biltoki Elkarteko ordezkari, Dantza Taldeko irakaslez eta nahi izan duen bertze zenbait kidez osatutako batzorde horrek bizpahiru aste daramazki lanean eguna behar bezala antolatzeko. Dagoeneko badakigu zein izanen den gutti goiti beheiti egitaraua: 11etan, Juanjo Txoperena Alkate zenaren aldeko meza; 11,45etan, bertsolari baten agurra, dantzari taldearen agurra, herriko Abesbatzaren kanta, pilotalekuaren bedein-kapena eta erakunde desberdinen ordezkarien hitzaldiak - Juanjoren omenezko plakaren agertzea ere izanen da; 12,45etan, afizionatuen arteko pilota partidua eta 2etan Zahar-etxean herri-bazkaria,



Dudarik gabe pilotaleku berria izan da eta izanen da negu honetako protagonista nagusia. Bestetan erabiltzen hasi baginen ere, geroztik ukitu batzuk eman behar izan zaizkio - ezker pareta gaineko sarea, bertze pintura esku bat, etab....- . Inaugurazio ekitaldiekin ofizialtasuna emanen zaio bere erabilerari.

Oskar Txoperena

Modestoren akordeoia lagunduta. Eguerdiko ekitaldien artean. Gogorazi behar da bazkari-txartelak denda eta ostuetan paratu direla salgai, 13a bitartean. Ez utzi azkeneko momentua arte!

Zahar-etxeko batzarrea

Urtarrilaren 30ean izan zuten Zahar-etxekoek urteko bilkurarik garrantzitsuena. Ez dute bazkide gehienek horrela pentsatuko seguraski, 150etik 30 inguru izan baitziren hi-

tzorduan agertu zirenak. Urteko kontuak, urte osoan egitekoak diren ekitaldiak eta Junta berritzea izan ziren gai nagusiak. Juntatik ateratako kideen orde, hauexek aukeratu zituzten bere lana betetzeko: Lehendakari, Eustakio Iguzkiagirre; Idazkari, Nieves Matxikote; Diruzain, Asuncion Gerra eta bokal, Hipolito Iparragirre.

Apetxea denda

Bizpahiru hilabete aintzina eta gibelera ibili ondotik, itxi egin ditu azkenean bere atea Apetxea denda eta ostuetak. Azkeneko urte hauetan M^a Jesus Tabernaren eskutan egon da, baina, uzteko asmoa agertu zuen ezkerotik, baldintzetaz informazioa eske agertu direnak aunitz izan badira ere, inork ez du azkenean ardura bere gain hartu nahi izan eta ondorioz itxi egin dute. Dudarik gabe, Apetxearen itxierarekin Igantziko historiaren orri bat pasatu dugula erraten ahal da.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • **LESAKA**

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

CONSTRUCCIONES GERONDA
BERAZUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • **BERA**

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — **BERA** — © 948 630763

PIKABEA *pinturak*
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

LESAKA

ARANTZA

Herrian zenbait lan egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso da

Bertzeak bertze, pilotalekua ixteko herriko langabetuak hartuko dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxeak Nafarroako Gobernutik dirulaguntza jaso du herrian zenbait berrikuntza egiteko. Obra hauen artean, pilotalekuko hegoaldea ixteko lanen bukaera eta pilotalekuaren ekialdea ixteko lanak daude. Horretarako, herriko langabetuak kontratatu nahi ditu udalak. Bertzalde, Herriko etxean hainbat gela moldatzeko lanak, bideetako kontserbazio lanak eta mendietako garbiketa, landaketa eta itxiera lanak eginen lituzkete langile hauek.

Medikuaren Etxean ere lanak egiteko eskaera luzatu da. Bertan, kalefakzioa gasarekin erabiltzeko aldaketa egitea, gela pintatzea, etabar... sartzen dira.

Kirol instalazioetan ere eskaera luzatu da,



Aurten ere umore ederrean joan dira iñauteriak

batez ere igerileku estalia egiteko.

Unanu

Unanu inguruko oihan enkanteko lanak *Hijos de Daniel Gomez, S.A.* enpresari eman dizkio Herriko Etxeak. Mila insignis pinuen lo-

tea enpresa honi emateko erabakia hartu du, hauen eskaintza inork ez duelako hobetu: 14.602.000 pezetaren truke aterako ditu pinuak.

Iñauteak

Joan den ortzegune-

an hasi ziren iñauteak, goizeko 9etan mozorroak bota zuten txupinazoaren ondotik. Egun horretan mozorroak Azkilarrea eta Aientsa auzoak egin zituzten. Gero, gauean, urtero bezala herriko emakumeek afaria egin zuten.

Ortziralean, Eguzkialdea eta Bordalarrea auzoak egin zituzten eta arratsalde-gau partean, Mikel Salaberri akordeolaria aritu zen bere musikaz giroa alaitzen.

Larunbatean, mozorroek herrian barna itzulia egin ondotik haurrak atera ziren beraien mozorroka jendeari erakustera. Gainera, aurtentzen aspaldiko partez, mozorro beltzak ere ikusi ahal izan genituen herrian. Gauean, plazan, Amaia eta Kristinak giro ederra paratu zuten eta Aterpen berriz, gau brasildarra egin zen, Txatunga Benbe taldearekin.

Igande goizean pilota partiduak izan ziren eta gero herri bazkaria Jokin Sorozabal eta Iñaki Murua bertsolariekin. Gauean poteoa egin zen Mikel Salaberriren musikarekin.

© 948631076 • BERA

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - © 948637264

LEGARRA
Legarra, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espirelean ere egiten dira

MARTIKO
Gure baserrietako produktua

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

SUNBILLA

Aurten ere karroza ikusgarriak karrikaratu ziren iñauterietako igandean

Guzira hogeita atera ziren, zein baino zein politagoa

JAIONE ETA ALBA

Aurtengoan ere hagitx arrakastatsua suertatu dira Sunbillako iñauteriak. Ortziralean gazteak baserri berriz base-ri ibili ziren. Arratsalde partean, txokoltea jan ahal izan zuten haurrek eta gauean, hirutan hogeita hamar bat emakumek afaldu zuten Ulibeltzak elkartearen. Erran behar afaria, aski goxoa zegoela eta zerbitzariak ere "Emakume" ederrak eta jatorrak zirela. Afalondoren, nafar jota talde batek bere kantuak eskaini zituen eta izugarritzko giroa sortu zuten. Goizaldera arte Mikel Salaberri doneztebarrak dantzan jarri zuen herriko nahiz kanpoko jendea.

Larunbat guzian puxkak bildu ziren herrian eta gauean Fonda ostatuan Leaitz trikitixa tal-



Hippien autoak eta aerobic taldeak, igandeko karrozen bi adibide.



TTIPI-TTAPA TELEBISTA

deak kontzertua eman zuten. jende aunitz bildu zen larunbat gauean, eta zer erranik ez igande eguerdian. Karrozen desfileak geroz eta ikusmin haundiago sortzen duela erran beharrik ez dago. Zero graduz azpitik egon arren, mila-kapertona etorri baitziren tortila, opila, gaztainak eta salda jateaz gain, sunbildarren du-

ten abilezia eta originaltasuna ikustera. Aurtengoan, karroza hauek atera ziren: Herriko Etxea, Opila, Gurre Hezur Salda, Urdandegia, Baserria, Sunbillako Merkaturia, Ortega Lararen bahiketa, Kinto Besta, Ski Saltoa, Aerobic, Disneyland-Sunbilla, Furor, XXI. mendeko monjak, Eskaleen autoa, Sumo, Akelarre

berezia, hippiak, lehen-go mendi gizonak, "Los chulos madrileños" eta Sunbillako zoologikoa. Desfilea bukatzean, zozketatu zen zerria, Jesus Mari Arretxearentzat izan zen eta bildotsa, berriz, Begoña Larralderi suertatu zitzaion. Ulibeltzak elkartearen egindako bazkariaren ondoren, gaueko ordu tikiak arte gi-

ro ederra izan zen ostatu nahiz karriketan.

Zuzenketa oharra

Azkeneko alean aipatu genuen medikua- ren etxea salgai jartzeko intentzioa zegoela. Dirulaguntza kontsulta konpontzeko eskatu dutela erratean okertu egin ginen, ordea, eskatutako dirua, Udaletxea ber- ritzatzeko baita.

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN • ☎ 948 450 491

MAYLIN ostatua
Iñauterietan ongi pasa
Parrokia 15, Tfnoa: 948 450 366 - DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Iñauteriak umore ederrean pasatu!

Merkatarien karrika 28
☎ 948 451826
DONEZTEBE

DONEZTEBE

Herriko karriketari azken hilabeteotan egindako lanak akitu dira

Iñauteriak ortzegunean hasi eta larunbata bitartean luzatuko dira

PATXI IRIARTE

Urte hasiera aipatzen zen Doneztebeko karriken moldatze lanak akitzeko epe bezala, eta ongi bete da. Azken hamarkada honetan herriari izandako konponketa proiektu haundiena izan dela erraten ahal da: kasik karrika guztiak altxatu dituzte, estolderia eta ur-hornidura sare berria sartzeko, baita gas sarea eta argi-kable ugari ere. Laister, etxe aintzinaldetan dauden mangera beltz itxusi horiek desagertuko dira.

Herrigunean zegoen beharrik haundiena estolderia edo alkantari-lla sare berria moldatzea zen, Ezpelurako presa desagertu zenetik burukomin aunitz sortuak baitzituen afera honen. Joan den urteko hiltzean proiektua aurkeztu zenean, 203 milioi pezeta inguruko aurrekontuaz solastu zen, horietatik 137 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduak. Lanak Mariezkurrena erakuntza enpresak egin di-



Ortzirealean eskolan eginen da desfilea eta larunbatean herrian.

tu. Doneztebeko enpresa denez, langileak eta herritarrak elkar ongi hartu dute, zenbait hiltzerekin herrian ibiltzea batera eroso izan ez den arren. Gainera, langileek, beraien borondatez eta debalde, Kasinon sartzeko malda bat egin dute.

Plaza Zaharra

Obretara itzuliz, karrikak erdian urarenda-

ko kanalea dute eta beritasunik haundiena argiterian dago, farola ederrak eta lehengoa baino argi goxoagoa ematen baitute. Aipamen berezia merezi dute herriko bi leku ezagunak izan duten aldeketa: Plaza Zaharra edo elizataria eta Plazokleta deitzen dena.

Iñauteriak

Asteburu honetan os-

patuko diren iñauterietako bazkari eta afarietan izen emateko zerrendak jarri dira dagoeneko: Ortzegunean, Belarra jatetxean izanen da afaria; ortzirealean bazkaria Santamaria jatetxean; egun horretan Ameztian afalduko da eta azkenik, larunbatean eguerdiko 12,30-etan bazkalduko da Arozenan. Goiz-goiz bazkaldu, gero desfile-

an atera ahal izateko. Aurten iganderako ez dago deus prestaturik eta besta hiru egunetan pilatuko da: ortzegun eta ortzirealean gazteak puxka biltzen ibiliko dira. Eskolan beraien desfilea izanen dute ortzirealean. Larunbatean izanen da desfile haundia herrian, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera.

Isunak

Ameztia karrika eta Donamariako bideaz gain, herriko zeharbide guzian ongi aparkatu behar da hemendik aitzinera. Arreta berexia eskainiko zaio autobusak buelta ematen duten errotondari, aunitz-kotxeek estaltzen baitute. Karrikak berriro zabaltzea ez du hobekuntza handirik ekarri aparkaleku kopuruan. Gainera, alde batean aparkatuz gero, errepideak oraindik meharraigoa iduri du. Den-dari, bizilagun eta langileei Elizagibela inguruan aparkatzea proposatu zaie, erosleek hurbilago aparkatzeko aukera izan dezaten.

Ibarrola Martzaria
 Martzaria orrapa
 0-14 urte
 Parroquia 11 - Doneztebe
 948 450 123

Karririkak
 LENTZERIA
 Parroquia 11
 Tfnoa: 45 01 12
 DONEZTEBE

AROZENA ostatua
 Gosariak eta bazkariak
 Eguzki Eder 3, Tfnoa: 948 450 443 - DONEZTEBE

ELIZATE Pintxoak eta bokadilloak
 Iñauterietan ongi pasat!
 Parroquia 3 • 948 450318 • DONEZTEBE

iBAi ONDO
 Ostatua
 Iñauterietan ongi pasat!
 Intzakardi
 948 450123
 DONEZTEBE

MALERREKA



Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunak joan-etorrian ibili ziren

Joaldunek ohitura bete dute Ituren eta Zubietako iñauterietan

Hainbat bisitari hurbildu zen iñaute astelehen eta asteartean

TTIPI-TTAPA

Ituren, Zubieta eta Aurtizko joaldun eta mozorroek urteroko ohitura bete eta herriz herri eta auzoz auzo ibili ziren otsaileko lehen astelehen eta asteartean.

Joaldun kopuru polita bildu zen, guzira berrogeita hamar inguru baitziren. Gainera, tradizioak segida izanen duela ikusi zen. Tomas Ibarra eta Jose Martin Bereau, 53 eta 51 urteko veteranoekin batera, ttikienak ere joareak jantzi eta helduen gibeletik ibili baitziren.

Joaldunekin batera mozorroak ere harat-honatean ibili ziren.

Iturengo sumo borrokariak eta Zubietako *asto-zatitzaileek* hautsa, iratzea, gorotza eta kolperen bat edo bertze banatu zuten, «*egunero-koarekin hausteko*». Pertsonai hauek, hotzari aurre egin zioten, zilipurdiak, buruztanka eta borroka eginez.

Hartzak ere bere lana bete zuen, eta katearekin lotua egon arren, emakumeak –batez ere kanpotik etorritakoak– izitzen aritu zen.

Aipatu behar da kanpotarrak aunitz izan zirela, bai astelehenean Iturenen, baita asteartean Zubietan ere. Astelehenean, Iturenen 20 autobus eta 175 auzotikontatu zituen Polizia



Sumo borrokariak hotzari aurre egin zioten, buruztanka eta zilipurdika.

Foralak. Zubietan ere ez ziren gutiago izanen. Honek trafikoan ere eragina izan zuen, batez ere

Iturenen, errepidea herri erditik igarotzen baita eta autoak ezin baitziren pasatu.

Ezpelura aldeko erretiratuak Donezteben bilduko dira otsailaren 21ean

Doneztebe, Urrotz, Oitz, Donamaria eta Gazteluko erretiratuak, hau da, Ezpelura errekek bustitzen dituen herrietakoak, Donezteben bilduko dira otsailaren 21ean.

Eguneko egitaraua, ximplea bezain interesgarria. Igandea denez, ez da meza bereixirik eginen, baina ohiko mezara agertzeko aukera izanen dute jubilatuz guziek. Egurdiko 1,30ak aldera bazkaria izanen da Jubilatuen Egoitzan, honako menu honekin: arrain zopa, legatza erromatar erara, azpizuna, txanpaina eta tarta izozkiarekin. Ondotik, Arkupeak elkartearen besta guzietan bezalaxe, dantzan aritzeko aukera izanen da arratseko 7,30ak arte.

Egun osoko prezioa 3.000 pezetakoa da eta otsailaren 10ean akautzen zen txartelak hartzeko epea. Halere, oraindik lekua baldin badago, xokoren bat eginen zaie ondotik apuntatzen direnei ere.

Donamarian 20 etxebizitza

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak, Donamarian hogeitaxebizitza egiteko aukera emanen duten arauak onartu ditu. Errekagorri eta Artze eta Doneztebe bideko mugatzen dute lur-eremua.




Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Euskal kantua indartzeko sail berria

Betidanik senpertarrek kanturako fama haundia ukan dute. Den estakuru ttikiena aski zen kantuz hartzeko. Ez zen ez denbora haietan "xaramela" beharrik. Duela 20 bat urte Senpereko errexiñolak mututu zauzkigu. Egun batez, agian deneri esker, xoria piztuko delakoan, TTAPI-TTAPA egiten dugunei iduritu zauku beharrezkoa etxetan diren kantu xaharrak biltzea eta zabaltzea. Segur gira han hemenka badirela kantu horiek "xaramelak" gordetzen ez dituenak edo berdin baten batzuek gogoz oraindik dakizkitenak.

TTAPI-TTAPA prest legoke kantu horien agertzeko edo berdin zintan hartzeko, egun batez liburuxka bat egiteko asmoz. Okasionea emanik, Olandeiko Fifinek hasten du saila "Nik ere badut fortuna bainan ez zuk emana" kantuarekin.

ttapi-ttapa
Oxtikenea
SENPERE



Nik ere badut fortuna bainan ez zuk emana

- 1 Mila bederatzi ehun eta hogeita batean
Kantuz hastera noa sujeten gainean
Uso xuri pullita Senpere herrian
Airetan dabilana joan dan aspaldian.
- 2 Senperen sortu eta Amotzen hazia
Uso hontaz ederki mintzo da jendea
Ez da arras tontoa erne du begia
Berak nahasia du Kartiera guzia.
- 3 Amerikano horietan du bere fantesia
Uste baita horiekin hobeki izaitea
Plazetara joateko jaun gisa besti(tu)a
Bainan etxean dute maiz gerla gorria.
- 4 Amerikano zahar oi tripa haundia
Aise enganatu duk inoxent trixtea
Lehen ere ibili duk zonbeit komedia
gizon zahar batentzat ez duk balentria.
- 5 Amerikano hori bihar da partitzen
Eta uso gaixoa trixterik gelditzen
Gaixoak holakorik ez zuen pentsatzen
Haurrak ere erorka zutik du ikasten.
- 6 Orain adrezatzen naiz aitameri
Kasu egin bezate uso gazteari
Nik uzten diot orain nahi duenari
Huntan erraiten diot adios Majiri.

Olandeiko
Fifin



Pantxoa ETCHEGOIN. Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria.

«Euskal kulturak aintzina egin behar du bainan gure nortasuna sekulan tronpatu gabe»

Euskal Kultur Erakundea (EKE) 1990eko apirilean sortu zen, Pizkundearen lana eta instituzioen diru partaidetzari esker (honetan Kultur Ministeritza, Akitania eskualdea, Departamendua eta euskal kulturaren aldeko herriarteko sindikata). EKE Uztaritzen kokatua da mementoan. 5 presuna ari dira lanean. EKEn helburuak zoin diren jakiteko Pantxoa Etchegoin erakundeko zuzendariarekin solastatu gira.



Pantxoa Etchegoin zuzendaria, bere lankideekin

■ **Jadanik bederatzire urte pasatu dira EKE sortu zenetik. Zer izan da zuen orai arteko lana eta balorazioa?**

EKE bi xede nagusiekin sortu zen. Alde batetik, Iparraldeko elkarteek hautesiekin lotura haundiagoak nahi zituzten. Bestalde, herrietako elkarte desberdinak gurutzatuz, euskal kulturari batasun bat eman nahi diogu.

Bi helburuak poliki-poliki betetzen ari dira. Jakin behar da, EKE sortu zelarik, sortu zela ere euskal kultura sustengatzeko herrien arteko sindikata bat. Sindikata hor-

tan, Iparraldeko 159 herrietarik 145 barne dira, besteak beste kostaldeko herri handiak. Hautetsiak eta Herriko Etxeak euskal kulturaren alde inplikatu dira biztanle bakoitzeko EKEn 2L25 emanez. Guk diru hori koordinatzen dugu herrietako kultur erakundeeri diru laguntzak emanez baina ixileko lan bat ere egiten dugu. Elkarrekin eguneroko lanetan ere laguntzen ditugu, hala nola, beren obrak plazaratzeko sala egokiak atxemanaz, gure esperientziaren bidez, materiala bilatuz.

■ **Aintzina begira, nola ikusten duzu euskal kultura XXI. mendearen atarian?**

Badira gauza baikorrak baina oraindik lan handia bada egiteko. Krisi batean gira eta euskara kinka txarretik lehen bait lehen atera behar dugu. Euskaldunok nortasun azkarra eta kultura bizi bat dugu. Sentimen horiek biziki inportantak dira eta alde hortatik lan egin behar dugu. Gure nahia da, euskara ahal bezain goiti erematea eta hortako, gero eta profesionalagoak izan behar dugu, kalitatezko lana egin behar da. "Bai Euskarari" kanpai-

na lan horren adibide bat da. Baina aldi berean, herri bakoitzeko lana baloratu behar da. Kalitateak ez du erran nahi antzerki obra batean herriko jendeak ez duela parte hartu behar. Alderantziz, guk nahi duguna da, herritik ateratzen diren proiektuak, hasieratik bukaeraraino kondizione onetan egitea; ensaiatzeko lekua ukanez, dekoraziorako behar den materiala atxemanaz, ahal bezain leku gehienetan lan hori erakustera emaitako xantza ukanez...

Guk biziki argi dugu, herri kultura dela oinarria eta gure laguntza kondizione on-

Gehigarria

tan lan egiteko baliabideak emaita dela. Azken finean, hizkuntza guttituen eta nor-tasun berezia duten herrien zailtasuna da tradizioa eta modernitatearen artean ekilibrioa atxemaitea. Hori da gure lana.

■ **Berrikitan, euskal kantua gure izaitearen oinarria delakotz, lan berezi bat hasi duzue. Zertan zizte mentu huntan?**


Munduan zehar, euskalduna kantari bezala definitua da, baina kasu eman behar dugu, hizkuntzarekin dugun problema bera baitugu kantuarekin. Guk kantuaren inguruan egin nahi dugun lanak baditu lau adar nagusi.

Lehenik 2000. urterako erakusketa bat antolatu nahi dugu, eskoletan eta elkarteetan erakustera emaiteko baina Frantzia, Europa eta Ameriketara ere ibiliko dena. Erakusketak aspektu pedagogiko bat ukanen du.

Bestalde, ohartu gira formakuntzaren inguruan badela lan haundi bat egiteko. Eskoletan lan eginez euskaraz bizitzeko gogo berriz piztu nahi dugu eta amateurreri buruz ere, ahotsa eta gorputz espresioa hobetzeko posibilitateak eman nahi ditugu.

Hirugarrenik, herrietan animazioak sortu nahi ditugu: mintzaldiak, gogoeta tokiak, kantu bazkari edo aforiak... Hortakotz, biziki inportante izanen da herriko jendea bazkari hoietara joan eta bakotzak dakien bezela, gustuan kantuz aritzea. Hortarik aparte, ikusgarri bereziak apailatu nahi ditugu, besteak beste, euskal kantua parekatuz munduko kantuekin (Georgia, Afrika, Asia, Japonia...).

Azkenik, Euskal Herrian kantuaren inguruan falta diren tresnak ekarri nahi genituzke. Hortako, Baionako erakustokiarekin elkarlanean,



EKEren egoitza, Uztaritzeko Lota gaztelua

Parisen, Munichen, Vienan diren euskal kantuaren inguruko materiala eta mende hasierako grabaketak ekarri nahi ditugu. Uste dugu gure artxibo eta fonotekak ukan behar ditugula.

Lan honen denari esker, ulertu nahi dugu, zendako sortzetik eta hiltzeraino hautatzen den Euskal Herrian, euskal kantuak loturak ditu mendia, itsasoa, amodioa, erbesteratzea, eliza, familia eta abarrekin. Kantuaren aspektu sozialaren inguruan gogoeta bat sortu nahi dugu.

■ **Hautetsien kontseiluak bi urtez dozierra blokatua atxiki ondoan, berriz ere, Hizkuntz Kontseilu bat sortzeko galdegin dauzue. Zer da zuen lana eta zer izanen da Hizkuntz Kontseilu hori?**

Bai, dozier hori bi urtez blokatua izan ondoan, Erramun Bachok gure lehendakariaren lanari esker berriz halan ezarria izan da. Orai ez dakigu zuzen zer izanen dugun baina bederen be-

EKEren urteko aurrekontua

600.000 L	Euskal kultura sustengatzeko herrien arteko sindikata
600.000 L	Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Generala
600.000 L	Akitania eskualdeko kontseilua
1.200.000 L	Kultur Ministeritza

Orotara 3 milioi libera

Aurrekontuaren

% 39	EKEren funtzionamenduarentzat erabilia da.
% 61	aktibitate kulturalentzat

rriz abian da. Gure lana izanen da, elkarte denen ideiak eta proposamenak kontuan hartuz, irakaskuntza, komunikabideak eta euskarak bizi publikoan ukan behar duen tokia bultzatzeko hautetsiei gure proposamenak egitea. Lan zaila da hautetsiak proposamenekin ados izan behar direlako eta gainera, adibidez erakaskuntzan, hezkuntza nazionalarekin lan egin beharko delako.

■ **Hegoaldean bada hizkuntz politika bat. Hizkuntz Kontseilua egiteko eta ber-**

tze lan batzuetarako Hegoaldekoen esperientziak ez al du balio?

Zoritzarrez Ipar eta Hego Euskal Herrian ez ditugu batera egoera berak. Halere, egia da esperientziak ez ditugula kalkatu behar baina bai baliatu. Hortako, baditugu harreman zuzenak Eusko Jaurlaritzarekin. Gainera, geroari begira eta batez ere Europari buruz biziki inportante da Ipar eta Hegoa aldeek elgarrekin lan egitea, pizu haundiagoa ukaiteko ●

JOANA MENDIBURU

GASKOIERA;

Euskal Herriko LAUGARREN HIZKUNTZA?



ne haur denboran Bidarrain, aitatxi entzuten nuen hizkuntza bitxi bat mintzatzen, Bidaxune aldeko edo Biarnoko jiten zitzaizkiolarik bisitaz. Beti orroitzen naiz akamartar batek erran zetala behin: “*Hire aitatxik guk baino hobeki emaiten dik patois*”.

Etxean ez ginuen eskuara baizik erabiltzen, lagunartean gauza bera, eta eskolan frantsesa, errientekek bortxaturik, mehatxupean. Aitaxatxi gizon ernea zen eta munduan ibilia. Egundatez, explikatzen zetan nola hain arraroa senditzen nuen lengoaia hura kaskoina zela. (...)

Aitak ez zuen mintzatzen delako “*patois*” hori bainan bai konprenitzen. Hunek, mintzairaren balioa baino gehiago, kaskoinaren guneak aipatzen zauz-kigun (Biarnoa, Landesak, Ahurti, Bidaxune, Akamarre, Erango eta beste).

Urteak joan urteak jin, buru muñetan nuen beti aitaxatxi zanaren aholua eta, huna nun Gure Irratiaren basatunburu bilakatzean, deliberatu dudana antena zabaltzea Baiona/Angelu aldeko kaskoineri. Zer dira bada Euskal Herriko kaskoin horiek? Bozateko agoteak, Ziburuko kaskarotak edo Garazi aldeko buhamiak bezalakoak? Ez, eta uste dut komeni dela historia poxi bat egitea.

Erromatarrek, Frantzia edo hobeki esan Galia menperatu zutelarik latina sakatu zuten galiarri eta hortik sortu ziren lekuko lengoaia berriak: Langue d’Oil, Loire ibaiaren iparraldean eta Langue d’Oc ibai horren beraren hegoaldean. Denbora hetan, akitaniarrak eskuaraz mintzo ziren Bordale arte, menturaz Dordogne ibai arte. Menperatzaile eta menperatuen arteko harremanak zirela-eta, akitaniarrak hasi ziren latin herrikoi bat mintzatzen. Kristo ondoko 6garren mendean, Nafarroako baskonak sartu ziren berriz indartsu Akitanian eta euskara zabaldu. Zorigaitzez, 9garren mendean es-

kuara berriz desagertu zen lehengo eskual eremu zelai hortan eta kaskoina nagusitu.

Baskonak gaskon bilakatu ziren eta ikusten da BASKON eta GASKON artean ez dela lehen hizkia baizik aldatzen.

Eta, zer da zelaiko eskualdunek erabiltzen zuten gaskon edo kaskoin hizkuntza hori? Ba, hain xuxen ere, Langue d’Oc edo okzitanoa deitzen den horren dialekto bat euskual kutsu eta zimendu nasai batekin. ARCAÇON, BISCAROSSE eta LA REOLE hiri izenak eskuararik heldu dira: Arkaitz on, Bizkar hotz, Larreola.

1000. urtea inguruan, eskuararen eta kaskoinaren muga berria, Baiona eta Aturri ibaian finkatu zen eta, gisa hortan agertu zen bi mintzairaren arteko kartzaka. Ipar Eskual Herriak Frantziarekin zituen muga guzietan, eskualdunak elebidun bihurtu ziren (eskuara/kaskoina) Montoritik hasi Baiona arte. (...)

Ikusi behar da Okzitanoa Frantziako 31 departamendutan erabiltzen zela (bestalde Aran ibarrean, Aragoi, Italiako Piemonte eskualdean) eta beraz, eskualdunentzako kanpo harremanetako lengoaia zen. Hizkuntz indartsua izanez (Lapurdiko Foruak, Xuberoko eskubide zaharra eta Baxe Nabarreko idatzi zahar gehienak kaskoinez idatziak dira), Pasaian, Lekeition, Iruñan, Lizarran, Tuteran, erabilia izan da ere brauki. (...)

Duela 60 bat urte sortu zen Baionan kaskoinzaindi bat eta, azken 30 urtetan barna, Baiona/Angeluko kaskoinzaleek jokamende gogorak erakutsi dituzte eskual berpizkundeari begira.

Barnealdeko herrietan, harremanak biziki goxoak ziren, egia da horko kaskoin bakarrak zirela funtzionario frantsesak (posta, aduana eta beste). Erriente edo maixuen kasua ez dut nahitarat sobera aipatzen, zeren, horiek bai kalte handia egin baitute (zigorra, diru isunake eta beste).

Herrietan funtzionario kaskoin ho-

rien haurrak eskualduntzen ziren normaltasun osoz eta, hortarako dira egungo abertzaletan anitz deitura kaskoin-dunak: CAMBLONG, LAFITTE, DAVANT, DUBROCA, LEMBEYE eta beste.

Zer gelditzen da kaskointasunaz Ipar Eskual Herrian?

Erran nezake anitz eta guti. Zertarako bada?

Alde baterik, deiturak (Baiona / Angelu / Miarritzen, gehienak), etxe izenak, hitz parrasta bat gure euskalkietan, sentsibilitate bat, bainan bestaldetik, hizkuntza hiltzorian dago. Baiona aldean ez da entzuten gaskoinik gehiago. Aturri behean, Bidaxunen, Akurtin, Bixunen, Samatzen, edo Akamarren, adineko bakar batzuek erabiltzen dute soilik etxean, baina, horiek ere beren eremu naturala Eskual Herrian baitan atxemaiten dute.

Lerro hauen irakurle frangok pentsatuko dute zertako ideki duten irrati eskualdun baten antena kaskoineri. Hiru arrazoin nagusi dira:

– Lehenik, ene barne sendimenduak (aitatxiren orroitzapenak eta bere kontseilua).

– Gero, kortesia: 10 mendez eskuara eta kaskoina parekatu eta uztartu dira Baionako karrketan. GURE IRRATIA Baiona erdian finkatua izanki eta, uste dut keinu hori zor geniola.

– Azkenik, egungo eskualdunen etsaia ez da gehiago kaskoinkeria, baizik eta frantseskeria bai eta mundializazio-keria ere. Beraz, eskualdunek eta kaskoinek ez dugu elkar jo behar gehiago, baizik eta elgarrekin jokatu Lapurdi, Baxenabarre eta Xuberoko zimendu eta harresiak zaintzeko. Jokamolde hori bereziki baliagarria da BAB inguruan. Geroak erranen zer gertatuko den gure lur maite huntan ●

NOEL ELORGA

Bertizko Partzuergoaren Merkatarien Elkarateak zozketatutako sei bonoetatik bi bakarrik agertu dira

Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatarien Elkarateak berrogeita hamarna mila pezetako sei erosketa-txartel zozketatu zituen urtarrilaren 14an eta momentuz bi bertzerik ez dira agertu: Berako Sucesores A. Iglesias dendan emandako 125.755 zenbaki saridunaren jabea Berako Arantxa Rekondo izan da. Doneztebeko Ruiz Autozerbitzuan emandako 171.746 zenbaki saridunaren jabea Legasako Corpus Erasun izan da.

Gainerako lauak oraindik agertu ez direnez, zenbaki sarituak oroitazaziko ditugu:

- 024296, Lesakako Izarra okindegian banatua.

- 052619, Elizondoko Baztan ferreterian banatua.

- 019520, Lesakako Telletxea argazkiden-dan banatua.

- 116304, Elizondoko Virgilio oinetakodendan banatua.

ZONALDEKO SARIDUNAK

Uste da zenbaki hauen jabeak zonaldekoak direla, beraz, otsailaren 13an balioa galduko dutenez, berandu izan baino lehen, boletoa begiratzea eskatu du Bertizko Turismo Partzuergoak. Saridunak, Partzuergoarekin harremanetan jarri behar dira, Bertizko egoitzara joanez edo 948 592323 telefonora deituz.

Aranoko iñoteak asteburu honetan igaro dira

Antolatzaile faltan, 1991 eta 1992an ospatu ez baziren ere, geroztik indarberrituak daude Aranoko iñoteak.

Goizuetan bezala zahi-dantza egiten dute hemen ere, baina zenbait berezitasunekin. Igande goizean eskean ibiltzen

dira gazteak base-rietan eta eguerdirako herrira itzultzen dira, bertan puskak biltzeko eta elkartean bazkalduko dute. Argazkian ageri denez, leku guzietan ongietorriak dira.



FI Z ITEZ GU EKIN

**. .C. GU E
L N-E EMU**

Uztarriak, gazteak, zahi-dantza, eguerdirako herrira itzultzen dira, bertan puskak biltzeko eta elkartean bazkalduko dute. Argazkian ageri denez, leku guzietan ongietorriak dira.

U KEZTEK E E U T I L E N T I K M T X E N I 2



RUR LKUTXA

GOIZUETA


Otsailaren 14tik 16ra ospatuko dira aurtengo iñoteak

Umore Onaren urteko batzarrera hogeit bat lagun besterik ez ziren agertu

ESTEBAN AROZENA

Hurrengo igandean –gure belaunaldia arte Zaldun-iñote izenaz ezagutzen zen eguna– gaueko 10ak inguruan Izkiña tabernan elkartuko da mozorroen taldea. Orduantxe hasiko dira aurtengo iñoteak. Dena den, horren aurretik ere igande berezia denaren seinalea izanen da herrian, Dani, Ainara eta Ebaren musika taldeak joko baitu plazan arratsaldean eta gauean. Ez da esan beharrik, noski, eskolako umeen zahidantzak ere bere lekua izanen duela Zaldun-iñote egunean, arratsaldeko 5,30etatik aurrera, hain zuzen.

Astelehen-iñote egunean goizeko 8etan hasiko da baserrietako puska biltzea. Arratsalderako berriz, umeen jokoak eta txokolatada bat programatu ditu Gura-



Irudi hau ez da San Sebastian egunekoa, iazko iñotetakoa baizik. Ostiral honetan ere kalean izanen dira herriko eskolako ikasle eta irakasleak, gurasoekin batera mozorrotutik gainera, aurtengoan.

soen Elkartek. Horrela, gaztetxoei arinagoak egingen zaizkie mozorroak berriz herriratu arteko orduak. Ilunabarreko 7ak aldera gertatuko da hori, eta Hernaniko gaiteroak zain edukiko dituzte ordurako.

Aurtengo astearte-

iñotean ere ongi eutsiko zaie ohitura zaharrei, goizeko puska biltzeari eta arratsaldeko zahidantzari alegia. Aipagarria goizeko 3etan Gaztetxean egingen den mozorro lehiaketa ere. Esan behar da gainera, bi egunotan arratsalde

eta gauean dantzaldia izanen dela Triki-take taldearekin.

Iñote ondorengo larunbata ere ez da nolana izanen aurten. Egundako bilduko dira mozorroak kontuak egitera, eta afalaurerako eta ondorerako Ziz-

kuitz txaranga ekarriko dute. Honelaxe agurtuko dituzte mende honetako azkeneko iñoteak.

Umore Onaren batzarra

Jexux Mari Loiarte presidente ordearen posturako eta Joxe Jabier Aizkorbe eta Txema Apeztexea bokaletarako hautatu zituzten hiltzaren 30ean egingo dako Umore Ona elkartearen asanblada orokorrean.

Hamalau urte bete berriak dituen elkarte honen bazkideen artean ez zuen ikusmin haundiegirik sortu aipatutako batzarrak, komisiokoez gain hogeit lagun bakarrik bildu baitziren Umore Onaren egoitzan arratsaldeko 7etan. Gai-zerrendako zazpi puntuak ordu erdi eskasean eztabaidatu eta bozkatu ziren.

ARESO

Urtero bezala, zezen-jatea egin zen Larrea elkarte

Iñauterietan karroza atera zen lehendabiziko aldiz

JUANA M^a SAIZAR

Beste urte batez bertso afaria eta zezen-jatea egin zen Larrea elkarte. Joxe Lizaso eta Joxe Agirrek bertso saio polita eskaini zuten eta inoiz baino saio luzeagoa, gainera. Dantzal-

diak eman zion bukarera festari.

Iñauteriak

Joan den asteburuan iñauteriak ospatu dira hiru egunez. Eguraldiak lagunduta –nahiz hotza egin– gazteak larunbatean baserrietan eta

igandean herrian eskean ibili ziren. Larunbat gauean festa ederra antolatu zuten, afaria eta mozorro-lehiaketarekin. Goizaldera arte dantzaldia izan zen. Igandean, giroa lasaixeagoa izan zen, afaria eta dantzaldiarekin.



Haurrek ederki pasatu zuten iñauterietan

Aipatu behar, lehenengo aldiz delako karroza ateratzen dela. Antzerki

bat ikusi ahal izan genduen, udal-plenoa irudikatuz.

Gitarranbuelako zabortegiaren lanen %75a Nafarroako Gobernuak ordainduko du

Udalak, Iruñetik aurkeztutako bi aukeren artean bat hartu beharko du

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak, Obretako Udalbatzordearekin egindako bilera baten ondorioz, zenbait konpromezu hartu ditu Gitarranbuelako zabortegia dela eta. Lehendabizi, aukera ezberdinak aurkeztuko dizkiote Udalari. Bien artean aukeraketa egin ondoren, proiektua egingen dute. Bi lan hauek ahalik eta azkarren egingen dituzte. Gainera, gutxienez obraren kostuaren %75 ordainduko dute, baita zuzendaritza teknikoaren gastua ere. Udala egingen da lanen kargu.

Landako industrialdea

Landako industrialdean eraiki gabe dauden partzelak berreskuratu nahi ditu Udalak. Pabilioiak egiteko saldu eta eraiki gabe dauden partzelen jabeek salmenta prezioa gehi urbanizazioarengatik ordaindutakoa eskainiko die eta derrigorrezko berreskurapena hasteko bideak aztertuko dira, ba-



Urtetik urtera karroza gehiago

Umore ederrean joan dira iñauteriak. Urtetik urtera karroza gehiago kale-ratzen direla. argazkiko Garagardo Pestakoak bezala. Estitxu Astibia

daezpada ere. Beste aukera, nabe bat eraiki eta iharduera bat garatzeko proiektua aurkeztea izanen da. Industrialdeko partzela guztiak saldu direnez, eta lur industrialaren eskaera bada-goenez, lur eraikigarria eskaini nahi da.

Igandeko zinea hamabostetik behin

Leitzako zinemako bolondresak eta Udalak,

igande arratsaldez eskaintzen ziren pelikulak hamabostetik behin ematea erabaki dute. Orain arte erabiltzen zen proiektorearen orde, zinemako kamarak erabiliko dira emanaldietarako eta kalitateaz gain, kostua ere handiagoa denez, sarrera 250 pezeta kobratuko da. Ostiral honetan, "Los miserables" emanen dute gaueko 10etan

eta igandean, "Los ven-gadores", arratsaldeko 4,30etan. Otsailaren 19an, ostirala, gaueko 10etan, "Estación Central do Brasil" izanen da ikusgai.

Zinemaren gaiarekin bukatzeko, Leitzako kaleetan "40 ezetz" laburmetraiaren irudiak hartzen ari dira - "40 ordu" rekin zerikusirik ez-. Hainbat aktore famatu ikusi ditugu.

flash

Kanposantuan nitxo berriak

Construcciones J.I. Saigos, S.L. enpresak hogeita hamabi nitxo egingen ditu kanposantuan, sei hilabeteko epean. Lanaren aurrekontua, 4'6 milioi pezetakoa da.

Tubo berria

Motxeneko iturritik ur-depositora doan 560 metrotako tubo, Gorritz Eraikuntzak enpresak aldatu behar du, bi milioi terdi pezetan, oraingotan oso egoera txarrean dagoelako.

Gure-Etxea

Gure-Etxea bota eta eremu horretan bederatzi etxebizitza egiteko lehen pausua eman da, Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak Leitzako Arau Subsidiarioak aldatzeko baimena eman baitu.

ERREKA

sagardotegia

Eguneko menua

ErrekaAuzoa • © 948 510625 • Mug.:619 620282

LEITZA (Autobiako irteeraren ondoan gaude)



ZURGINDEGIA

**GAZTELU
ITURGINTZA**

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086
LEITZA

BAZTAN



Oronozko Eskolaren inaugurazio ofiziala otsailaren 10ean

Argazkian ageri denez, irakasle, ikasle eta gurasoek dagoeneko Oronozko eskolaren zabaltzea musika doinuekin eta dantzan ospatu badute ere, ofizialki otsailaren 10ean egin da. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako lehendakaria eta Javier Marcotegui Hezkuntza kontseilaria etorri ziren, Baztango alkate eta zinegotziekin batera.

flash

❖ **Baztandarra Txirindularitza taldearen** ez-ohiko batzarra eginen da ortziral honetan, otsailak 12, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Lehen deialdia arratsaldeko 7etan, eta bigarrena berriz, 7,30etan izanen da. Eguneko gai-zerrendari dagokionez, lehenik iazko kontuen irakurketa eta, hala badagokio, onarpena eginen da eta gero taldeburuaren hautaketa. Baztarra arras garrantzitsua da, taldeburugairik agertzen ez baldin bada, taldeko estatutuek dioten moduan, taldea behin betiko bannanduko baita, Santiago Ibargarai lehendakariak sinututako oharrean ageri denez.

❖ **Gomaespuma mozorro tailerra** Elizondoko iñauteriak gainean ditugula eta gomaespuma mozorro tailerra antolatu du Baztango Gazte Asanbladak. Otsailaren 6an hasitekoa zen tailerra Baztandarren Bilzarren egoitzan.

Azken aldian piztutako suteek kezka sortu dute Udalean

Junta Generalak zenbait erabaki hartu zituen ez-ohiko batzarrean

TTIPI-TTAPA

Azken aldian Baztango mendi eta plantazioetan piztutako suteak direla eta Baztango Junta Generala ez ohiko batzarrean bildu zen hilbeltzaren 22an. Aferaren larritasunaren ondorioz, sute hauek guttitzeko eta, ahal bada, desagertarazteko solu-

zioak bilatu nahian, herrietan informazioa emateko batzarreak eginen dira. Honela suteek sortzen dituzten kalteak ikusi eta sua emateko bete beharreko arauak ezagutzera emanen dira.

Junta Generalak, Baztango ondarean eta orokorrean, ingurugiroan sortzen duten kal-

teak ikusita, idatzi bat argitaratu du, sua kontrolpean noiz eta nola eman behar den erakutsiz. Eraberean, informazio kanpaina zabalduko da eskualdeko komunikabideetan.

Herritarrak kontzientziatu eta informatzeaz gain, Nafarroako Gobernuari ere zenbait eskari luzatu dizkio

Juntak. Honela, normalean sua hartzen duten eremuak noizean behin garbitzea eskatu zaio. Udalerriaren zabaltasuna kontuan hartuz, Gobernuak gastua bere gain hartzea eskatu da. Azkenik, Baztango Mendiaren Ordenazio Plana lehenbailehen idaztea eskatu zaio berriro Gobernuari.

**KASINO
OSTATUA**

Iñauteri onak pasa!

Jaime Urrutia 10 • ELIZONDO
☎ 948 581 251

**GOIZ-ALDE
OSTATUA**

*Aukera zabala
platera, bokata eta pintxotan*

Iñauteriak ongi pasa!

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO
☎ 948 581 334

*intra
taberna*

**Iñauteriak
ongi pasa**

☎ 948 580 417
elizondo

BAZTAN

Ihauterietako ospakizunak herriz herri zabalduko dira

Elizondoko karrozak eta Arizkungo Hartza ikusgai izanen dira

TTIPI-TTAPA

Orabidea, Elbete, Basaburuan eta bertze zenbait herrietan ospatu dituzte dagoeneko iñauteriak, baina asteburu honetan, Orakunde Egunaren ondotik, izanen da mozorrik Baztango bazterretan.

Amaiurren ortziraletik igandera puxka biltzen ibiliko dira gazteak, Jose Angel akordeolariaren laguntzaz. Ortziralean gaineko baserrietan, larunbatean azpiko baserrietan eta igandean herrian eta Urrasunen.

Elizondon igandetik asteartera sartuko dira besta giroan. Astelehenean herriko ikaste-txeetako haurrak aterako dira desfilean eta asteartean gazteen txanda izanen da.

Arizkunen ere igandetik asteartera ospatu-



Arizkungo Hartza, Baztango ihauterietako pertsonai ezagunenetako bat, baina ez bakarra.

Nafarroako Ihauteria

ko dituzte iñauteriak. Asteartean hartza karrikatuko da eta sargardantza dantzatuko

dute plazan. Erratzun ere igandetik asteartera izanen dira iñauteriak. Erratzun

ere badute beraien pertsonaiak astearterako: damak eta zanbonba haundien burrunba.

flash

Oihanberritze lanak

Balleko herri lurretan oihanberritze lanak egiteko lau proiektu eginen ditu Nafarroako Mende-giak elkarteak. Guzira 40.861.666 pezetako aurrekontua izanen da, 1998 eta 1999ko gastuetan sartzeko. Otsondo-Indartea inguruan 6.391.007 pezetako inbertsioa eginen da. Sagabil inguruan 17.561.152 pezeta inbertituko dira eta Zarbasta-Arakan inguruan 6.741.484 pezeta. Urbia-Bizubietan inguruan azkenik, 10.168.023 pezetako inbertsioa eginen da.

Naberrri lantegia

itxizen ahal dela aditzen da karrikan. Udala langile eta zuzendaritzarekin bildu da informazioa biltzeko. Enpresa Baztanen mantentzeko eginahalak eginen ditu Udalak.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO

ITSASONDO ostatua
Pintxoak • Bokatak • Taloak
Dastazazu gure kroketak
☎ 948 580238 • Jaime Urrutia 3 • **ELIZONDO**

BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGI BERRIA:
Egunero
goizeko 9,30etatik 1,30etara eta
arratsaldean, 4,45etatik 7,45etara
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • **ELIZONDO**

DOLATXEA OSTATUA
Iñauteriak ongi pasa!
☎ 948 453002 • **ARIZKUN**

ETXEBERRIA
ostatua
jatetxea
denda
Iñauterietan ongi pasa!
☎ 948 453013
ARIZKUN

LABAYEN ostatua

- Pintxoak
- Kaxuelak
- Plater konbinatuak
- Bokatak

Santiago 47
☎ 948 580338
ELIZONDO

BAZTAN

Hiru lanpostu betetzeko deialdia egin du Balleko Udalak

Bi kontserje eta mekanikoa izanen dira

TTIPI-TTAPA

Baztan Balleko Udalak hiru lanpostu modu finkoan betetzeko oposizio-lehiaketa deia egin du.

Bi lanpostu, San Francisco Javier ikastetxean eta Balleko Etxean kontserje edo atezain kargua betetzeko izanen dira eta bertzea, zerbitzu aunitzertarako langilea, hori bai, mekanikan espezialdua.

Lan eskariak otsailaren 24a baino lehen aurkeztu behar da udal bulegoetan eta bi hilabete baino lehen hasiko da oposizio-lehiaketa. Hiru lanpostuetarako Lanbide Heziketa titulua eta euskarari dagokionez, Hizkuntz Eskolaren hirugarren maila gaingitua izan behar da, guttienez. Halere, ahozko proba batean beharrezko mai-



Xorroxin Irratiaren egoitza berriaren inaugurazioa

Urte hasierakin Abiazioaren Etorbideko egoitza koloretsu berritik emititzen hasiak baziren ere, hilteltzaren 29an inauguratu zen ofizialki Xorroxin Irratiaren bulego berria. Langileekin batera, udal ordezkariak eta hainbat entzule hurbildu ziren. Hemezortzi urte bete dituen irriatiak, "Zein koloretakoa da Xorroxin?" lelopean kanpaina egiten ari da, egoitza berria (bi estudio, lokutorio bat, erredakzio gela, publizista nahiz idazkariarentzat gelak eta biltegi batez hornitua) ezagutarazteko. Lizentzia eskuratu ondotik, Xorroxinen hurrengo erronka, «Lesakan estudio berri bat paratzea da».

la erakutsiz gero nahikoa izanen omen da.

Baldintza eta xehetasun gehiagoren berri jakiteko,

udal bulegoetan galdetzen ahal da.

ZUGARRAMURDI

Presoen Senideen mozioa onartu zuen udal batzarrak

Euskal preso politikoaren senide eta lagunak biltzen dituen Senideak erakundeak aurkeztutako mozioa onartu zuen udal batzarrak ahobatez. Mozioan, presoak Euskal Herrira hurbiltzea eta zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenak eta eritasun sendaezinak dituztenak askatzea eskatzen zen.

URDAZUBI

Errota eta monastegiko klaustorako langilea

Errotan eta monastegiko klaustroan gidari lana egiteko herriko langabetu bat kontratatzea erabaki du Udalak. Modu honetan, Nafarroako Gobernuako Industria, Komertzio, Turismo eta Lan Sailak lanpostuak sortzeagatik udalei ematen dien dirulaguntza jaso ahal izanen da. Langilea maiztzetik urria bitarte ariko da eta 1.295.322 pezetak kobratuko ditu (soldata, aseguru soziala eta extrak barne).



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

A G E N T Z I A

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

ARGIBEL OPTIKA

☎ 948 581 391

Santiago 62 - ELIZONDO



Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

SENPERE



Berrogoita sei elkarte lanean ari dira Senperen

Urte osoan berrogoita sei elkartek lan egiten dute herrian: bizia, animazioa eta adiskidetasuna zabalduz. Hauetan, argazkiko Emak Hor musika taldea eta bertze aintz... Studio de la Nivelles

flash



Panpi Erremundegi

eskual presoak libro utzi dute urtarilaren 29an. 1990ean ere arrastatu zuten eta preso atxiki urte batez. Erremundegi senpertarrari 6 urteko presondegi zigorra ezarri, eta urte eta erdi bete du presondegian. Legez gain den maitatzean atera bazitakeen ere, berrikitan elkartu da familiarekin.

Urrezko Ezteiak

Hourcastagné, Lagrenade eta Laurent Bereau jaun-andereek Urrezko Ezteiak ospatu dituzte berriki. Zorionak herriko hiru bikote hauei.

Aprendizgo hobereana

Jean Pascal Billon herritar gaztea saristatu dute Pauen aprendizgo hobereana delakoan. Zurgintzan ari da lanean.

Ihauteriak hurbiltzen zaizkigu, mozorrotzeko garaia heldu da

Otsailaren 20an, larunbatarekin, izanen ditugu

FRANCK DOLOSOR

Aurtengo ihauteriak otsailaren 20an izanen ditugu. Arratsaldeko 4,30etan elgarretaratzea Gaztelu aintzinean, gero ibilaldia karriketan barna eta animazioa Posta eta Eliza aintzinean. 6,30etan San Pantzar jumatuko da. Ondotik, erromeria izanen da Gantxikin.

Oroitaraz dezagun xokolet-esnea eskainia izanen zaiola mozorrotua izanen den haur bakotxari. Uztaritzeko txaranga, Lasai-lasai eta

Hendaiako Luixa taldeek bazterrak alaituko dituzte. Otsailaren 13 eta 20an gazteak etxez etxe ibiliko dire *“xingar eta arroltze”* galdetzeko.

Hamaseigarren Herri Urrats

Hamaseigarren Herri Urrats maitzaren 9an ospatuko da *“Euskara hazi, euskaraz”* leloarekin. Besta berezia izanen da, aurtentzen Seaskak, Ikastolen Federazioak, hogoita

Ofizioen Foruma

12garren Ofizioen Foruma Donibane Lohitzuneko St Thomas ikastegian iraganen da otsailaren 13an, larunbatez, 9etarik goiti.

hamar urte betetzen diutelakoz. Aurtengo bestaren musika Eztanda trikitixa taldeak egin du.

Herri Urrats kari biltzen den dirua, Ziburu eta Kanboko ikastolako kolegioentzat izanen da. Denbora berean barnekaldeko ikastolak la-

Kolegioko ikasleek 120 profesionalekin hitz egiten ahalko dute jakiteko ofizioak nola ikasi behar diren. Arretxea ikastetxeak parte hartuko du.

gundu nahi lituzkete. Pentsatzen da hirugarren kolegio bat idekiztea Baxe Nafarroan, hamabi urteko ikasleentzat.

Euskararen besta beti bezala lakuaren inguruan ospatuko da, aurtengo maitzaren 9an.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



Kutxa Kutxa Kutxa

txa Kutxa Kutxa Kutx

Kidetz berri bat!
Kutxa 7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
 Tel. 0559203274 Fax 0559203237

Eztanda taldea herrian izanen da ihauterietako larunbat arratsean

Igandean, zanpantzarren auzia izanen da musikariek alaiturik

ANA MARI, MARTINE ETA FREDERICK

Urte guziz bezala, Sarako Gaztetxeak antolatzen ditu Ihauteriak otsailaren 13 eta 14an, larunbat eta igandez.

Larunbatean, gazte andana bat ibiliko da esleian, etxez etxe Elbarrun eta Lehenbizkai auzoetan dantza eta musikarekin, Herriko Etxeko edantegian bukatzeko. Arratsean Eztanda trikitixa taldea entzuten ahaliko dugu Herriko Etxeko Edantegian.

Biharamon goizean, mezatik leko, jendeak ikusten ahaliko du gazteek egiten duten desfilea, Zazpiak Bat taldeak emanen duen dantza saioa eta Panpi Gerard musikariaren emanaldia. Ondotik, ihauteri guzitan ohitura den bezala, zanpantzarren auzia izanen da musikariek alaiturik. Azkenean, Sarako Gazteek bazkaltzen ahaliko dute Trinketean, xabela ongi betetzeko.

Gau Eskolaren biltzar nagusia

Joan den urtarrilaren 25ean, Sarako Gau Eskolaren biltzar nagusia iragan da. Pasa den urteko bilan baikorra egiteaz gain, urte honetako xedeak ere agertu dira. Ikasturte hau du-darrik gabe, Korrikak markatuko du eta hori dela eta hainbat ekitaldi antolatuko dira herrian. Bertzalde, egoitz propio bat erdiesteko premia larria azpimarratu da, bereziki materiala bertan uzteko gi-



Asteburu honetan ospatuko dira Sarako ihauteriak

Artxiboa

san. Denbora berean, lehenbista eta bideoa lortzea ezinbertzekoa da kurtsuen kalitatea segurtatzeko. Horretaz gain, bulegoa ere berri-tua izan da. Lehendakaria: Kristian Paterne. Idazkaria: Karoline Errandonea. Diruzaina: Marie-Pierre Pradere.

Kubari buruzko gaualdia

Korrika Kulturalaren karietarat, Sarako Gau Eskolak Kubari buruzko gaualdia antolatuko du Gaztetxean heldu den otsailaren 19an, ortziralarekin. Bertan izan diren saratar batzuen lekukotasunak entzuten ahaliko dira, argazkiak eta diapositibak erakutsiko dituztelarik. Hori guziaz pintxoaz, mojitoz eta Kubako musikaz lagundurik, bixtan dena!

Bixente Garciaen aldeko afaria

Iragan urtarrilaren

23an Bixente Garcia herritar presoaren aldeko afariagenuen, BIGA sustengu komiteak antolaturik. 150 pertsona inguru bildu ziren Daniel Laplacettek gogotik utzi Omordia gelan, Christophe Pradines-ek prestatu apairu

goxoaren preziatzeko. Hori-ek guziaz giro ezin hobean joan dira Christian Bordak eskertuak doinu dantzagarri-erri esker. Bestalde afaltiarrek sustengu hitzak idatzi dizkiote Bixenteria eta honekin gegin margoa zozketatua izan

da. Irabazlea Senpereko Mari-Jo Berruet izan da.

Mus lehiaketak

Herriko Etxeko Edantegiak urtero bezala bere mus lehiaketa antolatzen du otsailaren 12tik goiti, izen emate-arekin batera bikote bakoitzak 120 libera oraindu beharko du.

Bertzalde, frantziako 37. mus txapelketa antolatu zuen. Urtarrilaren hasieratik 24 bikote aritu dire musean ortziralerok. Lehiaren ondotik lau bikote ateri dire garaile eta txapelketa segituko dute kantonamenduko bertze herritan. Hauek dire: Mixel Urbistondo eta Jean Michel Jauregui; Stéphane Aguerre eta Marie Pierre Iribarren; Manex Bergara eta Antton Bidegain eta Patricia Dolosor eta Christophe Elizalde.



ttipi-ttapa

6.800 harpidedun
23.000 irakurle

Zure publizitatea etxe xoko guzietan

☎ 948 63 11 88



Urtebeteko konexioa gehi
posta elektronikoko helbidea:

10.000 Pta. + BEZ

KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan. Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

☎ (+34) 948 631188

EZKONTZAK

Jose Mari Olazar Bereau eta **Nati Baleztana Santesteban**, Doneztebe eta Zubietakoa, urtarrilaren 23an.

JAIOTZAK

Urko Apezetxea Lujanbio, Goizuetakoa, urtarrilaren 22an.
Aritz Elizegi Saharrea, Gartaingoa, urtarrilaren 14an.
Maite Oskoz Ormart, Gartaingoa, urtarrilaren 16an.
Marina Retegi Urtasun, Elizondokoa, urtarrilaren 13an.
Joseba Telletxea Arraztoa, Arraiozkua, urtarrilaren 3an.
Luis Mari Urrutia Iñarrea, Elizondokoa, urtarrilaren 14an.
Mario Lopez Pagazaurtundua, Gartaingoa, urtarrilaren 11n.
Amaia Rekarte Barberena, Erratzukoa, urtarrilaren 18an.
Amaia Jorajuria Mendiburu, Doneztebekoa, urtarrilaren 20an.
Julie Soudre, Sarakoa, urtarrilaren 28an.
Oier Zapiain Migelena, Berakoa, urtarrilaren 14an.
Jonan Fagoaga Telletxea, Lesakakoa, urtarrilaren 21ean.

HERIOTZAK

Victoria Sarratea Legasa, Legasakoa, urtarrilaren 11n, 82 urte.
Patricia Migeltorena Irungarai, Arizkungoa, urtarrilaren 21ean, 71 urte.
Martin Jose Irisarri Organbide, Elizondokoa, urtarrilaren 31n, 65 urte.
Ramon Etchart, Sarakoa, urtarrilaren 18an, 80 urte.
Raimundo Garmendia Irazoki, Berakoa, urtarrilaren 25ean, 75 urte.
Florencio Pajares Bermejo, Berakoa, urtarrilaren 18an, 75 urte.
Hermenegildo Zubigarai Iturria, Lesakakoa, urtarrilaren 28an, 79 urte.
Maria Almandoz Mitxelena, Lesakakoa, urtarrilaren 27an.
Benita Bertiz Iparragirre, Sunbillakoa, urtarrilaren 17an, 81 urte.
Maria Josefa Ibarra Agesta, Sunbillakoa, urtarrilaren 19an, 69 urte.
Vicente Marzol Labaien, Aresokoa, hilbeltzaren 19an, 76 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin betea, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXARA

JATETXEA
 © 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

Galarza

BAZTAN FUNERARIA
 EHORKETA ZERBITZUAK
 HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 TRASLADOAK
 Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

MENDIALDE Jatetxea

 Etxeko gasnak saltzen ditugu
 Dantxarinearako bidean, 66. km.
 AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
 edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

BAZTAN
ALTZARIAK
 zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

DATUAK.....

1 Hogeitalau urte bete dituen Patrizia Leizak bortsz urte daramazki piragua, rafting eta gisako kirolak egiten.

2 Aurten Estatu Batuetako mendietan egon da eskalada egiten eta zenbait erreka jausten. Espedizioa emakumeek osatzen zuten.

3 Red Rocks (Nevada) Grand Capitain, Half Done, Coloradoko Kainoi Haundia... eta hainbat leku zoragarri ezagutu ditu

4 Bere aspaldiko ametsa bete nahiko luke aurten Patrizia Leizak: «Nepal alderat gatea».

✎ **Patrizia LEIZA** *Elizondoko kirolaria*

“Piragua bizkarrean hartu eta oinez segitzen dugu arriskua dagoenean”

Duela bi urte, Zanzebe erreka urak piraguan eta rafting eginez jautsi zituen Patrizia Leizak Zimbawen bi hilabetez. «Munduan ur-emari gehien duen erreketako bat da Zanzebe. Ideia bat egiteko, Bidasoak ur aunitz dakarrenean segunduko 20 metro kubiko badi-tu, Zanzebek egunero 1.500 zituen». 1997ko Eguberrietan, Marokkon zenbait erreka jautsi zituen, Berako eta Elizondoko bi lagunekin batera. Aurten, mendi aldera jo du Estatu Batuetako Kalifornia ingurura. Bitxikeri gisa, eskalada espedizioa emakumeek osatzen zuten. «Hori izan zen berexiena. Hueskako eta Estatu Batuetako bi emakumeek eskalada artifizialean arrisku gehien duen A-5 mailako Grand Capitaine-ko Aurora bidea igo zuten lau egunez. Beraiekin batera argazkilaria zegoen, taldeko mutil bakarra. Nere eginbeharra argazkilaritari laguntzea zen, bide guzia ekipatu berak argazkiak hurbilagozik ateratzeko moduan».

«KALIFORNIAKO ERREKA POLITENA JAUTSI GINUEN»

Eskalada egin arren, errekek ez zituen alde



Patrizia Leiza Red Rocks mendi katean ateratako argazkian

batera utzi elizondarrak. «Zuzenean Kalifornia-ra joan ginen, eta Los Angelesetik Yosemite aldera eta hamar egunez zenbait bide egin ginuen». Handik San Francisco aldera mugitu ziren eta Sacramento, Kaliforniako erreka politena jautsi zuten. «Zailena 5. maila ba-

da, hura 3-4 mailakoa zen, arras polita. Bi egun egon ginen jautsez eta oso pozik».

Horrenbertze mugitzeko dirua behar da eta horretarako Patriziak uda partean lan egiten du, «neguan bi edo hiruhilabetez kanpora gaitekoa aukera izateko. Hemendik aitzinera laguntzailearen bat lortzen saiatuko gara».

Rafting, eskalada eta horrelako kirolak arrisku edo abentura kirol bezala ezagutzen ditugu, baina Patriziari ez zaio izen hori gustatzen.

«Guk egiten ez duguna bertze batzuk egiten dutela ikustean iduri du arriskua dela, baina ez da hori. Gupiragua egiten hasi ginelarik bertze batzuk ikusten genituen laugarren gradu-ko erreka jausten eta 'ze eroak, hori arriskua!' erraten ginuen. Baina gero poliki-poliki ikasten joaten zara eta posible dela ikusten duzu. Guk ere arrisku handia ikusten dugunean piragua bizkarrean hartu eta oinez segitzen dugu. Norberak jarri behar ditu bere mugak».

► **“Piraguan hasi ginelarik, bertze batzuk ikusten genituen laugarren gradu-ko erreka jausten eta ‘ze eroak!’ erraten ginuen. Gero, ikasi eta posible dela ikusten duzu.”**

TESTUA:
AITOR AROZENA

Mikel Atxa eta Unai Apeztegia Espainiako txapeldun bigarren mailan

- Sei tantutan utzi zituzten Haritz eta Auxkin, hilteltzaren 31n jokaturako finalean
- Profesionaletan lehendabiziko txapela izan da Aurtiz eta Almandozkoarentzat

Mikel Atxa almandoztarrak eta Unai Apeztegia aurtiztarrak errextasun osoz jantzi dute Espainiako bigarren mailako eskuz binakako txapela. Barañainen hilteltzaren azken igandean jokaturako finalean 22 eta 6 irabazi zieten Haritz eta Auxkini, historiarik gabeko partidu batean.

Giblean sendo eta seguru aritu zen Apeztegia eta Auxkin mendean hartu zuen. Ederki probexu zuen hori Atxak eta bere kalidade nabarmendu zuen aitzin koadroetan. Txapagainean moztutakoak, bi paretak, gantxoak, boleak... errextasun osoz egin zituen eta hori gutti balitz, bi tanto sakez eta bertze bat pilota errebotera bidaliz

lortu zuen.

Beraz, berrogeita bortz minutu eta 415 pilotakada nahikoak izan ziren eskualdeko bi pilotari hauek beraien lehen txapel handia jantzeko.

Txapela eta sariak Javier Trigo Nafarroako Kirol eta Gaztedia Institutuko Zuzendariak, Julian Garcia Angulo Espainiako Pilota Federazioko lehendakariak eta Jose Maria Salanueva, Nafarroako Federazioko lehendakariak banatu zituzten.

Atxa eta Apeztegia, txapeldun

Diario de Navarra



Senosiainek desafio Mikel Mindegiari

Olagueko Antonio Senosiain aizkolariak desafioa luzatuz dio Mikel Mindegia 50 urteko zubietarrari. Lana hogeika naerdiko moztea da eta hemendik bi hilteltzera jokatuko litzateke. Hori, joan den ortziralean Mindegia Doneztebeko Belarra kafetegira agertuko balitz. Aitzinago ere emanen dugu apostu honen berri, baina bakoi-tzak guttienez milioi erdi jokatzea zen Senosiainen erronka.

Bere garaian Latasa, Berakoetxea eta Arria ziren aurkari gogorrenak.
«Entrenamendu eta lan asko eginda bakarrik irabazi ahal izan nien»

Diario de Noticias



Patxi ASTIBIA Leitzako aizkolaria

“Leitzan beti aizkolari haundiak izan ditugu eta hoberenetako bat Gartziarena izan zen”

Patxi Astibia leitzarra eta Mikel Mindegia zubietarra omendu zituzten hilteltzaren 27an Iruñeko sagardotegi batean. Astibiari, aizkoraren alde egindako lana eskertu nahi izan zitzaion eta

Mindegiari, berriz, txapel gehien dituen aizkolaria izatea saritu.

Patxi Astibiak due-la hogeita bost urte utzi zuen aizkora. «kontrarioz gabe gelditu nintzen, inork ez baitzuen nirekin aposturik jokatu nahi, ez lan luzetan ezta laburretan ere. Mendi-ra joan behar izan nuen eta egun batean zuhaitza gainera erori eta giltzurrintan min hartu nuen. Ha-

lere, pozik esan dezaket txapeldun izanik erretiratu nintzela».

Aizkoraren etorkizuna zalantzarik betirik ikusten du Astibiak. «Nafarroako Gobernuak eta bertze instituzioek dirulaguntza gehiago eman behar dituzte. Aizkolari gazteak badaude, baina ez da logikoa udako erakustaldietan irabazten duten guziaz neguan entrenatu ahal izateko gastatu behar izatea».

AGENDA EGUNEZ EGUN

ĪNAUTERIAK

BERA

► Otsailaren 13tik 16ra.

ARIZKUN

► Otsailaren 14, 15 eta 16an.

DONEZTEBE

► Otsailaren 14, 15 eta 16an.

ELIZONDO

► Otsailaren 13, 14, 15 eta 16an.

ETXALAR

► Otsailaren 15 eta 16an.

GOIZUETA

► Otsailaren 14, 15 eta 16an.

LESAKA

► Otsailaren 13, 14, 15 eta 16an.

URDAZUBI

► Otsailaren 15 eta 16an.

ZUGARRAMURDI

► Otsailaren 15 eta 16an.

ERRAZU

► Otsailaren 15 eta 16an.

AMAIUR

► Otsailaren 15 eta 16an.

SARA

► Otsailaren 13 eta 14an.

SENPERE

► Otsailaren 20an.

ZINEMA

LEITZA

► Otsailaren 12an Los Miserables 10etan.

► Otsailaren 14an Los Vengadores 4,30etan.

► Otsailaren 19an Estación Central de Brasil 10etan.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



Lerro hauek gainera ageri den taulan ttipi-ttaparen betiko programazioa

sartzen dugu aldiro. Oraingo honetan, ordea, egun berexiak dira uste dugulako, programazioa goitik beheiti aldatu eta

iñauterietan burubelarri sartzea erabaki dugu. Adi egon programa berexiak izanen dira eta (ikus 7. orrialdeko koadroa).

ĪNAUTERIAK TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

• Dagoeneko ikusi izanen duzuen bezala TTIPI-TTAPA TELEBISTA inguruko iñauterietan arront murgilduta egondu da azken egun hauetan, eta hortan egonen gara hurrengo egunotan ere. Iñauterietako azken txanpan, Bera, Lesaka, Etxalar eta Goizuetako irudirik politenak.



BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 90 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 30-35 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa510
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra560
1.koa540
2.koa520
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 30.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 32.000 eta idixkoak 40.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

Liburuak



«Thule»

Joanes URKIXO
ELKARLANEAN

Abentura liburua da begiaurrean dugun hau, gazteentzako espreski idatzitako abentura liburua, gainera. Thule Finlandia eta Feroa uharten artean dagoen irla baten izena da, eta liburuan agertu eta desagertu egiten den irla bat da. Irakurlea erabat engantxatzeko osagai guztiak dituen istorioa da Joanes Urkixoren: piratek untzirik gabe uzten duten marinel euskaldun pare,

Venezia edo Bilboko gertakizun historikoak, borrokak, maitasuna... abenturazko klasiko bat, azken finean. Erdi aroan girotua dago nobela hau, eta sinesgarritasuna emateko idazlea behar bezala dokumentatu da garaiko xehetasunak bilduz. Errate batera, denbora haietako sinesmenak eta legendak sartu ditu tartean, batez ere Thule irlaren ingurukoak.

JAKIN BEHARREKOAK

Mudantza egiterakoan kontuan hartzekoak



Mudantza egiterakoan arazoak gerta daitezke garraioarekin.

Batzuetan, bizitokia aldatzen dugula eta, etxeko gauzak toki batetik bertzera eramatea suertatzen da. Horretarako mudantza-enpresa batengana jotzen dugu, ohatzeak, mobleak eta gainerako trasteak garraiatzeko. Garraio horretan arazoak gertatzen ahal dira, eta beharrezko pausuak ez emateagatik alferrik izan daitezke gure erreklamazioak.

Adibide gisa, lagun bati gertatu zitzaiona: honek mudantza-enpresa bat kontratatu zuen etxeko gauzak eramateko, eta lana akitu ondotik enkargatuak luzatu zion onarpen agiria sinatu zuen. Geroxeago, gauzak biltzen hasi orduko, zerbait falta zela ohartu zen. Berehala erreklamatu zuen, baina enpresak erran zion ez zuela bere gain hartzen. Orduan Kontsumoko Arbitraia Batzordera jo zuen, baina honek bere aurkako erabakia eman zuen, lana ontzat ematen duen agiria sinatu zuelako.

Beraz, onarpen-agiria sinatu ezkerre ontzat ematen dugu mudantza-enpresak egindako lana, eta gero erre-

klamatzeari alferrik izanen da.

Mudantza-enpresa bere lana egiten ari dela ustegaberi ez izateko, hona hemen zenbait kontseilu:

1- Aurrikusi: gauzak eramateko eguna denbora de-xente lehenagotik finkatu.

2- Aurrekontua eskatu: mudantza-enpresari aurrekontu idatzia eskatu. Bertan lan guztiak eta prezioak ez ezik, trasladoo egiteko eguna ere agertuko da.

3- Kontratua sinatu: lana hasi baino lehen kontratu bat sinatu, egin beharre-

ko lanak eta egunak zehazten diren kontratua. Kontuan izan enpresa batzuk gehigarri bat kobratzen dutela zenbait lan egiteagatik.

4- Mobleak aseguratuz: batzuetan, toki batetik bertzera eraman beharreko gauzen gaineko aseguruia kontratatzen da.

5- Gauza tikiak aldean eraman: balio haundikoak badira, batez ere.

6- Sinatu baino lehen egiaztatu: garraiatutako gauza guztiak egoera onean daudela jakin arte ez sinatu onarpen agiria.

7- Erreklamazioa egin: zerbait hondatu edo galtzen bada enpresaren erreklamazio-orria betetzea nahitanahiezkoa da.

MIKEL BEZUNARTEA
IRATXE KONTSUMITZ. ELK.

Onarpen-agiria sinatu ezkerre, alferrik izanen da gero erreklamatzeari.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

► Otsailaren 14an

Arraioz-Arraioz ibilbidea egiten dute Baztango Mendigoizaleek.

► Otsailaren 21ean,

berriz, Azpilkuetatik Alkurruntzera joanen dira.

BERA

► Otsailaren 14an

8. mugarrira joanen dira. Irteera: goizeko 9-etan ikastolako atean.

► Otsailaren 21ean

Atxuriara; goizeko 8,30etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► Otsailaren 12an

De Marras. Kasinon. Arratsko 10,30etan.

SENPERE

► Otsailaren 21ean

Dementia eta Argia Hendaiako taldeek jo-ko dute Oxtikenean, arratsaldeko 4etan.

ERAKUSKETAK

BERA

► Otsailaren 22tik

27ra Guatemalari buruzko erakusketa Kultur Etxean. Arratsaldeko 5,30etatik 8etara.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

► Otsailaren 8tik

14rat Igantzi, Narbar-te, Urdazubi, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► Otsailaren 15etik

21era Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Otsailaren 22tik

28ra Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

DISKAK



«Hou pitxu hou!»

Amaia Zubiria

ELKARLANEAN

Elkarlanean argialetxearen proiektu berriaren barrenean kokatu behar da Amaia Zubiriaren azken disko hau. Asmoa, urte sasoi bakoitzarekin lotura duten diskak ateratzea da. Urte bukaeran Pantxo eta Peiok "Oles ta Oles" lana aurkeztu ziguten, eta orain, berriz, Amaia Zubiriaren txanda da. Udaberriari eskainitako 16 abesti grabatu ditu, hainbat la-

guntzailerekin batera. Bertzen artean Luis Camino, Peio Ramirez, Iñaki Garmendia aurkituko ditugu, baina aipagarria da Lesakako "Ziobi" abesbatzako gizasemeek ere beren bozak jarri dituztela Zubiriaren zerbitzura.

Denen artean iñauterietako, Santa Agedako eta sasoi honetako bertze kanta tradizionalak abesten dituzte.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ERNE!

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu beharko da hemendik aitzinera, eta ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako kontu honetan sartu eta justifikantea guri igorri behar diguzue faxez edo postaz: 3008 0080 53 0200014973

BERA. 23 m²ko lur-azpiko bajera salgai. Ura eta argia baditu. ☎ 948 630 412.

LESAKA

Denda salgai
Herri erdi-erdian, martxan dagoen jamaridenda traspasatzen da. 70 m².
Informazio pertsonala.

☎ 929 010 790 (arratsaldetan)

ROMANO DEKORAZIOA

120 m²ko lokala salgai BERAn.
7 metroko erakustokia, guztiz ekipatua.

Legia, 1

☎ 948-631137/630948

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Altzate karrika inguruan 55 m²ko lokal komertziala errentan emanen nuke, denda, bulegoa edo erakusketak jartzeko prestatua. ☎ 948 630 959.

BERA. 95 m²ko lokal komertziala errentan ematen da. Kanttonberri karrikan. ☎ 948 631 370.

LANA

301 ESKARIAK

Gizon batek edozein lan eginen. Zerbait eskeintzeko baldin baduzu, deitu. ☎ 689 230 206 edo 948 387 005

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

Lana eginen nuke etxea garbitzen. ☎ 948 635 231.

Ezkontza elizkizunetan, urrezko eta zilarrezko ezte-elizkizunetan kantatzen dut. ☎ 948 610 697.

LANA

302 ESKAINTZAK

Kamarera behar dugu asteburuetan lan egiteko, eguerdiko zerbitzuan. ☎ 948 631 394 (goizez).

Esperientziadun sukaldaria edo sukaldari laguntzaileria behar dugu. ☎ 948 631 106.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Opel Kadett 1.6 salgai, NA-2851-W matrikuladuna. Egoera onean dago eta modu onean salduko nuke. ☎ 948 450431.

Nissan Terrano I salgai. NA-AL eta 60.000 km. 2.700 TD. Oso egoera onean. ☎ 948 630 661 / 948 631 327.

MOTORRA

502 TAILERRAK

BERABI tailerrak
☎ 948 631 445•BERA

Bigarren eskuko autoak
Nissan Patrol 4 zilindro Pick-up berriak Xantia TD

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Clio diesela, Peugeot 205 GTI, Land Rover Defender 110, VW Golf GTI.
Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

Hiru hilabeteko **artzain txakurkumeak** oparitzeko. Iriarte, Zubieta. ☎ 948 393 081 (eguerdi eta gauetan).

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Ahuntzernariak salgai Lesakan. ☎ 948 637772 (eguerdi eta arratsetan).

Cocker Ingeles txakurkumeak salgai, pedeeagriekin. ☎ 948 637 432.

Zerri axun gazte bat salgai. ☎ 948 581 023.

Husky siberiarra salgai. ☎ 948 450 825 edo 929 052 749.

Behi suizo ona eta urtebeteko aketza salgai. ☎ 948 581 023.

Bi basurdetarako zakur salgai Zubietan. Ongi ikasiak. ☎ 943 320 994.

5 hilabeteko **zakurra salgai.** Malamute arrazakoa, artzain zakur alemanarekin nahasia. Prezio onean. ☎ 948 393044 edo 948 451521.

Azpiko zaldia salgai. ☎ 948 453 170 (3etatik 4etara).

Paumak (pabo realak) salgai. ☎ 948 630 140.

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

LEITZAN, 2 pisu salgai.
ARESON, pabilioia salgai.
IRUÑEAN, pisu oso ona salgai.

☎ 649 476 615 • 948 510 167

BASERRIA SALGAI



ETXALAR: Baserría salgai, etxe inguruko lur guzietan (soro eta zubiak). Preziaz solastuko gara.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

IRURITA. 65 m²ko bajera salgai, negozioa jartzeko prest (komunak, argi instalazioak). ☎ 948 452 044.

LESAKA. 77 m²ko bajera salgai Bittiria karrikako 71.ean. Komuna badu eta negozioa jartzeko prestatua dago. Prezioa: 9 milioi negoziagarriak. ☎ 948 637 050 edo 948 627 591.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Emakumezkoen **betaurreko graduatuak galdu** dira Bera edo Lesakan. Montura berdea dute. ☎ 948 631 030.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Petroleozko estufa salgai, Zibro Kamin RCA 86B. 35.000 pta. ☎ 943 611 721.
Hiri gasarentzako **ur berogailua** salgai. Fagor FL100 10 litrokoa. Gutti erabilia. 15.000 pta. ☎ 943 611 721.

Kalefakzio zentralerendako **radiadorea salgai**, kontsumo ttikikoa. Programatazaille digitala. 22m² berotzen ditu. Urte batekoa. ☎ 948 627 623.

Biltegian gordetako gari, garagar eta olo **ahotza sal-**

gai fardo haundietan. ☎ 948 30 22 08.

Ehun litrotako **tanke elektrikoak** salgai. ☎ 948 510 498.

Iturgintza eta elektrizitate tresnak salgai. ☎ 948 627 655 (arratsaldeko 8etatik aitzinera).

Denda bateko **bitrina-fri-gorifikoa** salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 948 592 114.

Haurrentzako **gela bikoitza** salgai egoera eta prezio onean. ☎ 948 637 026.

Bigarren eskuko **mobleak salgai**, egoera onean. ☎ 948 637 174.

Paretako erloju zaharrak erosiko nituzke edozein egoeratan. ☎ 948 274 295 edo 945 451 403.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Bartzelonako Maritxeleri: zorionak eta segi betiko "ye,ye" neska izaten. M.

Mutil gazte batek adiskidetasun eta posta trukea nahi du hemengo mutilekin. Erdaraz edo euskaraz. Anima zaitetz. Idatzi Barañaingo 5.067 posta kutxatilara.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuzko, bidali seiloak eta sobrea zure helbidearekin.



Mikel Del Rio beratarrak 11 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak bere familiarren partetik.



Izar Kañameres Bertiz iruindarrak 2 urte bete ditu urtarrilaren 27an. Zorionak familiarren partetik.



Txaro Salas beratarrak urtarrilaren 27an bete ditu urteak. Zorionak Sunbillako familiarren partetik. Aupa koinata!



Ander Aranburu Zelaia 8 urte bete ditu otsailaren 4an. Zorionak Oihana, aita eta amaren partetik.



Maialen eta **Bittor Chantrek** 8 eta 6 urte beteko dituzte kattuena hilabete honetan. Zorionak katuxoak!



Haizea Etxeberria Terros lesakarrak urtea beteko du otsailaren 24an. Zorionak ama-atta, ataxi-amaxi eta izebaren partetik. Mui!



Oizko Nekane Ariztegi otsailaren 8an 23 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat, panpoxa. Izaskun, Esther eta Ainhoa.



Iker Sein Etxeberria igantziarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 15ean. Zorionak zure familiarren partetik.



Zorionak Saioa Mitxelena Gortari otsailaren 18an 16 urte beteko dituelako. Guraso, ahizpa eta familia guziaren partetik.



Felix Gonzalezek otsailaren 6an bete ditu urteak. Zorionak laguneren partetik.



Asun Gamio gazteluarrak otsailaren 3an urteak bete ditu. Zorionak familiarren partetik.



Ainara Saralegi leitzarrak otsailaren 19an beteko ditu 5 urte. Zorionak zure familiarren partetik.



Idoia Leonet Etxegiak bi urte bete ditu hilbeltzaren 29an. Zorionak bere Oiartzungo eta Goizuetako familiarren partetik.



Sara Salaberriak 5 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak familiarren partetik.



Unai Elizagoienek 8 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak Elizagoien familiarren partetik.



Kontxi Larraidek urteak bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak familiarren partetik.



Jone Ordoki Urkijo lesakarrak otsailaren 17an beteko ditu 17 urte. Zorionak familiarren partetik.



Amaia Larralde Urkijo lesakarrak urteak beteko ditu otsailaren 24an. Besarkada haundi bat familiarren partetik.



Zorionak Marilu azkaindarrari urteak bete dituelako. Familiarren partetik.

ETXALAR UDALAREN HIRIGINTZA PLANAREN HASIERA BATEKO ONESPENA:

• Etxalarko Udalak, 1999ko urtarrilaren 21ean egindako osoko bilkuran, ondoko akordioa hartu zituen:

Etxalarko udalak kontratatu zuen arkitektoak aurkeztutako Udala Planaren proiektua aztertutik,

Eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeak 115. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik,

Aho batez, gehiengo absolutua lortuta, ERABAKI DA:

Lehenbizikoa.- Udalaren Hirigintza Plana hasiera batez onestea.

Bigarren.- Udala Plan hori jendaurrean jartzea hilabete bateko epean.

Hirugarrena.- Aipatutako 115. artikulua agintzen dituen tramiteak egitea.

Laugarrena.- Lurrak zatitzeko, eraikitzeko eta botatzeko lizentzia gehiagorik ez dela emango ohartaraztea, aipatutako Foru Legearen 106. artikulua araberak.

Bosgarrena.- Jendaurreko epea, hilabetekoa izanik, akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina hasiko da, interesatuek bidetako jukatzaren dituzten alegazio guztiak aurekez ditzaten.

Udalak nahi du herritar eta interesatu guztiak Plana ikustera etortzea, eta beuren kezak, zalantzak, asmoak eta irizkiak udalari azaltzea zuzenean edo arkitektoaren bitartez.

Etxalarren, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi urtarilaren hogeita sei.

Alkatea,

Sinatua: Miguel M^o Irigoien Sanzberro



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

ALDAKETAK • ALDAKETAK • ALDAKETAK
Hemendik aitzinera argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu bidali behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkiak TTPI-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.



Bidatz Irurue-ta Indakotxea doneztebarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak ahizpa Alazne eta aitaren partetik.



Ibon Rey Ortiz beratarrak 2 urte bete ditu otsailaren 7an. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Unairen partetik.



Pili Lizardi arantzarrak 28 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Carlos Retegi igantziarrak urtarriaren 27an urteak egin ditu. Zorionak Lesaka eta Igantziko familiaren partez. Espe, Garazi eta Izaro.



Maixux lesakarrak urteak bete ditu urtarriaren 30ean. Zorionak eta besarkada bat familiaren parteztik egin!



Maritxu doneztebarrak urteak bete ditu urtarriaren 30ean. Zorionak Lesakako familiaren partetik eta segi krokotak egin!



Naroa Mendiberri Aldaz beratarrak otsailaren 4an 9 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Igantziko **Juanjori** otsailaren 14an urteak beteko ditulako, zorionak laguneren partetik.



Igantziko **Martari** otsailaren 1ean urteak bete dituelako zorionak laguneren eta familiaren partetik.



Maider Olaziregi Urkiolak otsailaren 9an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Ixabel Ferrero Igao beratarrak 83 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta aunitz urtez panpoxa! Musu handi bat familiaren partetik.



Amalia eta Ainhoari zorionak, hibelzaren 15 eta 27an euren urtebetetzea delako. Aunitz urtez familiaren partetik.



Maite Maiaak otsailaren 5ean bete ditu urteak eta **Jone Otxotekok** otsailaren 13an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Itxaro Zabaleta leitzarrak 2 urte bete ditu urtarriaren 19an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Manuel Goñi oiztarrak otsailaren 17an urteak beteko ditu. Zorionak familiaren eta bereziki ilobaren partetik. Muxuak.



Candido Mubertaria Oskoz arantzarrak urteak bete ditu urtarriaren 28an. Zorionak emaztea eta seme-alaben partetik.



Zozaiako **Ana Belen Agerberri** zorionak hilaren 21ean 17 urte bete dituelako. Joxe, Axun, Nekane eta Mirenen partetik ongi pasa.



Zozaiako **M'Joxeri** zorionak urtarriaren 19an 16 urte dituelako. Etekoen partetik, txanpan soberarik ez edan!



Yorka Elizetxe Elizagoben amaiurtarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 28an. Zorionak familiaren partetik.



Leire Barutia Elizalde beratarrak 9 urte bete ditu urtarriaren 30ean. Zorionak aita, ama eta Xabierren partetik.



Jurdan Cestero Bueno beratarrak 8 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak guraso eta Ikerren partetik.



Aiora Biurra-rena Bertiz otsailaren 14an 2 urte beteko ditu. Zorionak Berako eta Lesakako familiaren partetik.



Maite Aranbillet Galzagorri irundarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 10ean. Zorionak familiaren partetik.



Jon Arozena Buldain irundarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak etxekoan eta Urrozko ataubi-amaxiren partetik.



Ibai Bereau Zapirain lesakarrak 10 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik. Aitari ere bai.



Meritxel Aragonés Escobares 34 urte beteko ditu otsailaren 20an. Zorionak eta aunitz urtez Lesakako familiaren partetik.



Lurdes Mitxelena lesakarrak 23 urte bete ditu urtarriaren 28an. Zer moduz oparitarako "Rover" bat? Ja, ja. Kuadrila.



Ane Bergara beratarrak otsailaren 3an beteko ditu 12 urte. Zorionak familiaren partetik.



Estibru Mikel-perizena Iri-sarri beratarrak 11 urte bete ditu urtarriaren 27an. Zorionak zure familiaren partetik.



Manoli Garcia lesakarrak otsailaren 5ean urteak bete ditu. Zorionak eta ongi pasa zure familiaren partetik.



Pilar Arruti Agirre irundar-beratarrak 74 urte bete ditu otsailaren 1ean. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partetik. Aupa Pilartxo!



Mari Carmen Barroso Alca-zarek urteak beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak senarra, Mikel eta Jon semeen partetik.



Antton Astiz Izeta elizondar-rrak otsailaren 5ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu bat aita-txo, amatxo eta Amaiaeren partetik.



Javier Escagrat Dozagarrat beratarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Eider Pikabea Mitxelena beratarrak 6 urte beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak ataxi, atta, ama eta Josebaren partetik.



Jon Gago sunbildarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 17an. Zorionak Arantzako familiaren partetik eta bereziki Lidia- ren partetik.



Asier Arretxea Bidegain narbartearrak 12 urte beteko ditu otsailaren 12an. Zorionak zure familiaren partetik.



Aimar Oskariz Uruegi Elizondokoak 3 urte bete ditu otsailaren 9an. Zorionak ama, aita, Ruben eta familiaren partetik.



Aritz Lezeak 6 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat zure ama eta aitaren partetik.



Elena Ara beratarrak otsailaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak Beñat, Irati eta familiaren partetik.



Javier Apezte-gia Iturriak 3 urte bete ditu otsailaren 2an. Zorionak Naiara, guraso eta amatxi- ren partetik.



Iñigo Altzuga-rai lesakarrak otsailaren 13an 11 urte beteko ditu. Zorionak familia- ren partetik. Aupa futbolari!



Beatriz Maritorea Ganboak 2 urte beteko ditu otsailaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Markel eta Julen Suarez Antxordoki Lesakako anaiek urteak beteko dituzte otsailean. Markelek 10 urte bete ditu otsailaren 8an eta Julenek 4 beteko ditu otsailaren 17an. Zorionak guraso eta Josu anaiaeren partetik.



Iker Gonzalez Altzugarai Unai Almandoz Altzugarai lesakar eta igantziarrak 5 urte eginen dute otsailaren 10 eta 19an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Maialen Telle-txea Zubieta oiartzuarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 12an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

KULTURKARI

publizitatea  zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa.: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

Irudi korporatiboa ▼ **Publizitatea prentsan**

Logotipoak ▼ **irratian**

Foiletoak ▼ **telebistan.**

Aldizkariak ▼ **Publizitate**

Katalogoak ▼ **kanpainen**

Diseinua ▼ **antolaketa.**

